

ELKARRIZKETA: ANJEL LERTXUNDI • EKARPENAK: EMMI PIKLER •
GALDEIDAZUE: AMELIA BARQUIN • EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN
MUSEOA • ATZEKO ATETIK: MIKEL ASTARLOZA

hh
hik hasi

143

4 EURO • 2009KO ABENDUA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



Bideo jokoak eta hezkuntza

Euskal Herrian egindako ikerketa


+8 urte

Ipuin honetan printzesa txiro bat agertzen da, begi zuloekin, San Borondon uharteko erregearen alaba. Begirada triste nekatua dauka, neguko arratsalde lainotsua bezalakoa.



PRINTZESA BEGI-ZULO
Juan Cruz Igerabide • Elena Odrizola

+8 urte



Leire Bilbao • Patxi Gallego
MARTIN EGON GELDI

Autotik ez irteteko esan dio amak Martini. Esana txintxo beteko du Martinek, baina hala ere ezin bertan gelditu, tartean sartuko baitira kotxeak, garabiak, ferryak...

GOZATU LITERATURA

www.elkarargitaletxea.com

elkar

EZ NAIZ SIRENA BAT ETA ZER?

Katixa Agirre • Eider Eibar



+8 urte

Helenari ez zaizkio igeriketa klaseak eta igerilekua gustatzen: ura belarrietatik sartzen zaiolako, ura ahotik sartzen zaiolako... eta horrez gain Sorkun irakasle sorgina atsegina ez duelako.

Rai Buro • Iratxe Inziarte **FATIMA**

Fatima neskatila lotsatia eta beldurtia zen; burumakur ibiltzen zen beti. Don Serio irakaslearen aurrean makurtzen zuen burua gehien...



+6 urte

aurkibidea



8
gaia

BIDEO JOKOAK ETA HEZKUNTZA

Kultura digitala gure jendartean hartzen ari den garrantzia handia da: ordenagailuak, Interneta, mugikorrak... Bideo jokoak ere horien artean sar genitzake, nahiz eta bideoan eta telebistan jokatu.

Euskal Herrian egin den lehen ikerketaren emaitzak eta ondorioak aurkezten dira hemen.



18
elkarrizketak

ANJEL LERTXUNDI

Orion jaiotako idazle zarauztarrak hezkuntzari buruzko iritziak agertu dizkigu egindako elkarrizketan. Irakaskuntzan ibilia da eta gaur egun ere hezkuntzan gertatzen dena oso gertutik jarraitzen du.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

BIDEO JOKOAK ETA HEZKUNTZA

EUSKAL HERRIAN EGINDAKO IKERKETA

18 elkarrizketa

ANJEL LERTXUNDI

26 ekarpenak

Bilbotik Budapesteko Pikler Institutura
Leire Aberasturi

29 galdeidazue

Etorkinen seme-alabak eskolan: zer aldatzen ari da?
Amelia Barquin

33 berriak

40 nora joango gara?

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa
Gallartan (Bizkaia)

42 Atzeko atetik

Mikel Astarloza

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilá eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Bideo jokoak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-11-11). Kopurua: 3.700 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararazten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 www.hikhasi.com

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala abendua

Zientifikotasunaz eta elkarlanaz



Hezkuntzaren gainean hartu beharreko erabakiek zientifikotasuna behar dute. Gainera, elkarlana sustatu eta indartu behar da hezkuntzako eragileen artean. Bi ideia, bi ikuspuntu.

EAEko Hezkuntza Sailburua Isabel Celaá kezkatuta agertu da komunitate horretako eskola eta ikasleekin gertatzen ariko litzatekeen adoktrinatzearen gainean. Adoktrinamendu hori nazionalismoaren aldera egiten ariko lirateke, gainera.

Antza, lan hori egiteko bitartekoak Euskal Curriculum eta euskara eskola hizkuntza gisa lirateke, gaingiroki.

Haren aburuz, Euskal Herria izan bada, izate kultural gisa. Errealitatea baita badela komunitate bat euskaraz hitz egiten duena eta kultura euskalduna duena. Hortik aurrera, Euskal Herria ez da existitzen, ez da juridiko-administratiboki antolatutako erakundea, ez da, beraz, herria.

Eta hori egitate zientifikoa da.

Ez omen du onartuko zientifikoa ez den ezer lantzea eskoletan. Eta horretarako, curriculum lupaz begiratu, eta behar dituen zuzenketa eta ezabatzeak egingo omen dizkio.

Zientifikoki sakontzen jarraituz, hizkuntza eta kultura bera izanik zer

dela eta egon litekeen hiru administrazio eta bi estaturen menpe azaldu beharko litzateke ere eskoletan... zientifikotasunaren bideari jarraiki, bederen.

Eskolako hizkuntzaren gaiari, eta hizkuntzaren gaiari orokorrean, heldu dio, baita ere. Kasu horretan ez dago garbi zein argudioz. Izan ere, zientifikoki oinarritutako ikerketek, esperientziak eta soziolinguistikak, psikolinguistikak eta beste hainbat diziplinetan adituak direnek garbi esan dute hizkuntza gutxiak hizkuntza nagusiarekin berdintasunera helduko bada zer den eskolan egin beharko litzatekeena, gutxienez.

Gainera, komunitate horretan bertan, urutiago joan gabe, eskolarako hizkuntza ereduaren 30 urteko ibilbideak erakutsi dute nahikoa nondik bai eta nondik ez jo beharko litzatekeen sustatzeko.

Gogora dezagun, legea beteko bada, EAEko gazteek derrigorrezko eskolaldia amaitzen dutenean bi hizkuntza ofizialak, gutxitua eta nagusia, mende-

ratu behar dituztela. Eta hori, zientifikoa ez baizik betebeharrekoa dela.

Azaldu dituen argudio, asmo, proposamen eta dena delakoen artean ez dirudi hizkuntzen lorpen maila ebaluatzeko egitasmorik dagoenik, ezta ikasleek zein mailatan lortu beharko duten hizkuntza bakoitza ezartzea. Eta horrela, hizkuntza helburuak ipini gabe eta ebaluazioak egin gabe zaila ikusten da bide zientifikoari heltzea.

Elkarlana da sarri aipatu duen beste kontzeptu bat. Behin eta berriz adierazi duenez, hezkuntzako eragile eta partaide guztiekin lan egin nahi du.

Nekez jorra litekeen beste bidea izango da hori. Gogora dezagun EAEko hezkuntza eragile nagusienek, EHIGE, Ikastolen Elkarteak, Sortzen-Ikasbatuak eta Kristau Eskola, adierazi diotela jendarteari ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko zer egin beharko litzatekeen eta zer egiteko prest dauden. Eta, oraingoz, sailburuaren eta eragileen ibilbideak elkarrengandik urrun daude.

kronika

Nafarroan, %45 igo da ikasle etorkinen kopurua bost urtean. Horixe da, behintzat, Nafarroako Hezkuntza Sailak emandako datuekin, Nafarroako Eskola Kontseiluak egindako Hezkuntza Sistemari buruzko txostenaren zirriborroak dioena. Antza denez, 2004-2005 ikasturtean 7.481 ikasle etorkin zeuden, eta 2008-2009 ikasturtean, berriz, 10.899. Txostenaren arabera, ikasle horietako gehienak Hego Ameriketatik etorritakoak dira. Ondoren Europako beste herrialde batzuetatik iritsitakoak egongo lirake eta baita afrikarrak ere. Ikasle gehienak, alde handiz, Ekuadorretik ailegatutakoak dira (3.331 haur). Eta ondoren, hurrenez hurren, Kolonbia, Maroko eta Bulgariatik etorritako ikasleak egongo lirake. Ikasle horien gehiengoa Haur Hezkuntzan dago matrikulatuta, eta hizkuntza ereduari dagokienez, zirriborroak dioenez, gutxi dira D ereduak aukeratzen duten gurasoak.



Hizkuntza gutxituen legea sustatzeko gogoeta taldea sortu dute Iparraldean

Ikas-Bi hezkuntza publiko elebiduneko gurasoen elkarteak eta EEP Euskararen Erakunde Publikoak Frantziako hizkuntza gutxituen legearen sorrera bultzateko taldea jarri dute martxan. Gogoeta taldea izango da.

Nicolas Sarkozy Frantziako presidentearen gobernuak 2008an hitz emandako hizkuntza gutxituei buruzko lege egitasmoa bertan behera geratu dela uste dute. Hori dela eta, Ikas-Bi guraso elkarteak eta FLAREP hezkuntza publikoan eskualde hizkuntzen erabilerak sustatzen duten guraso elkartearen federazioak gogoeta taldea jarri dute martxan. Lege horren sorrera bultza-

tzea da sortu berri den gogoeta taldearen helburua. Horretarako, Thierry Delobel Ikas-Bi elkarteako eta FLAREP elkarteako presidentek Euskararen Erakunde Publikoaren laguntza eskatu du. Hain zuzen ere, "egitasmoak aurrera jarrai dezan eta legea bozkatu dadin" EEPn oinarrituko direla adierazi du. Hizkuntza Legea egiteko, Frantziako legediak dituen zirrikituak aztertzea da gogoeta taldearen xedeetako bat.

"Lege esparrua beharrezkoa da"

Dagoeneko, Frantziako Asanblea Nazioalean legearen sorreraren alde dagoen lan taldearekin harremanak izan dituzte, eta orain zalantzan dauden diputatuekin hitz egiteko asmoa dute. Lege proiektuaren faltan, behintzat lege proposamena azter dezaten.

Gogoeta taldearen aurkezpen ekitaldian Max Brisson eta Frantxu Maitia EEPko presidentea eta presidenteordea ere izan ziren. Brissonen hitzetan "lege esparrua guztiz beharrezkoa da hizkuntza politika irankor bat garatau ahal izateko. Maitiak, aldiz, jarrera guztiz baikorra azaldu zuen: "Ziur legea egingo dela, bihar ez baldin bada, beste egun batean".

Hezkuntzaren zeregina ez da jendeak zer pentsatzen duen irakastea baizik eta pentsatzen irakastea.

Ezezaguna



Curriculum dekretu egitasmoa aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak

Joan den azaroaren 2an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Isabel Celaák Lehen Hezkuntza, Derrigorezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa arautzeko curriculum dekretu egitasmoak aurkeztu zituen. Hezkuntza Sailaren hitzetan, aurreko legegintzaldian Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak (EA) egindakoaren ondoan aldaketa “garrantzitsuak” izango ditu.

Hizkuntzari dagokionez, Hezkuntza sailak ez du euskara lehenetsi nahi, eta euskara eta gaztelania parekatuko ditu. Celaáren hitzetan, erabaki horrek “elebitasun orekatua” lortzea du helburu. Hizkuntzen artean “mailaketa hier-

kakikoa” egin nahi izan duten egitasmoak errealitatea ukatu nahi izan duten “zentzugabekeriak” izan direla adierazi zuen Celaák. Are gehiago, aurreko Jaurlaritzarek euskarari garrantzia handiagoa emateko dekretua “alferrikako iraina” izan zela esan zuen sailburuak.

Beste aldaketa nagusietako bat “Euskal Herria” hitzari dagokiona da. Isabel Celaá sailburuak adierazi zenez, terminoa ez da curriculumetik guztiz ezabatuko. Kasu batzuetan, hizkuntzari eta kulturari buruzko esparruetan, termino horri utsiko diote. Beste alor batzuetan, Euskadi edo Euskal Autonomia Erkidegoa terminoen gatik aldatuko da.

Horrez gain, giza eskubideen hezkuntzarekin lotutako helburuetan ere aldaketak proposatu ditu Eusko Jaurlaritzak: “Indarkeriaren ukatzeak modu argian agertu behar du curriculumean, eta ez dezala saihestu gure herrian dagoen egoera”

Celaák aurkeztutakoa Euskadiko Eskola Kontseiluak aztertu beharko du, besteak beste. Ondoren, Eusko Jaurlaritzara itzuliko da, onartu eta datorren ikasturtean martxan jartzeko. Ez du legebiltzarraren onespenez behar.

Bi egunetako greba egin dute EAEko eskola publikoetako jangeletako langileek azaroan. ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatu deitzaileek emandako datuen arabera, hamar langiletatik bederatzik egin zuten greba azaroaren 24ean eta 25ean, eta milaka ikasleri eragin zien. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak kudeatutako eta grebak eragina izan duen jangelak 460 dira, eta 55.000 mila ikasleri ematen diete zerbitzua. Langileen aldarrikapen nagusiak honakoak dira, besteak beste: %5eko soldata igoera, lanaldia handitzea, alergiari, dietei eta lehen sorospenei buruzko prestakuntza, eta langile bakoitzeko haur gutxiago izatea. Horiek guztiak adosteko, Jaurlaritzari eta patronalari “negoziatzera esertzeko” deia egin diete. Bien bitartean, Hezkuntza Sailak ikastetxeei greba aurrez ez jakinaraztea leporatu zien sindikatuei. Horrek, besteak beste, antolaketa zaildu zuela nabarmenduz, EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioak, berriz, gutxieneko zerbitzuak bermatzeko eskatu zuen, greba eskubideari errespetua agertzearekin bat.

GAIA

Bideo jokoak eta hezkuntza

Euskal Herrian egindako ikerketa





Bideo jokoak gure garaiko fenomeno sozial eta kultural oso garrantzitsuak dira. Aisialdiko industriaren artean, diru gehien mugitzen duena bihurtu da, zinemaren eta musikaren aurretik. 2008. urtean, adibidez, bideo joko industriaren salmentak 15.000 milioi eurokoak izan ziren Europan, aurreko urtean baino 2.000 milioi (%15) gehiago.

Jose Inazio Imazek eta Garbiñe Bereziartuak (EHU) koordinatu duten ikerketa bideo jokoaren gainean Euskal Herrian egin den lehena izanik, hezitzaileok ezagutzea komeni da; bideo jokoek haur eta gazteengan duten eraginaz ohartzeko eta hezkuntza lanean nola joka dezakegun hausnartzeko.

Bideo jokoaren eragina

XX. mendeko azken hamarkadetan eta XXI. mendeko hasiera honetan, gizarte edo jendarte berri batean murgiltzen ari omen gara. Soziologoek ustez, bizitzen ari garen aldaketa handia da; gizadiaren historian neolitikoa eta industria iraultzak ekarri zutenarekin alderatu daiteke. Batzuek postindustrial edo/eta postmoderno deitzen diote gizarte berri honi, eta Manuel Castells-ek ezaguna egin duen “informazioaren gizartea” kontzeptua ere asko erabiltzen da.

Jendarte honetan, kultura digitalak eta pantailek izugarriko garrantzia hartzen dute: ordenagailuak, Internet, mugikorrak... Bideo jokoak ere horien artean sar genitzake, nahiz eta terminoa gehiago zehaztu behar genukeen, bideoan edo telebistan jokatzaren jokoaren gain (kontsola bidez gehienetan), kontsola eramangarriak (*Nintendo DS* edo *PSP* bezalakoak) eta ordenagailurako jokoak ere kontuan hartu behar baitira. Horregatik, agian, aproposagoa da joko digital edo elektronikoa kontzeptua erabiltzea.

Industria berri honek sekulako indarra hartu du azken urteetan, eta aisialdiko industriaren artean diru gehien mugitzen duena bihurtu da, zinemaren eta musikaren aurretik. Komunikabideetan, joko berri hauen arriskuak nabarmendu izan dira batez ere, beste gai askotan bezala fenomenoaren alde morbosoa azpimarratuz: indarkeria sustatzen dutela, adikzioa sortzen dutela... Kontuan hartu eta serio aztertze-

ko moduko eztabaidak dira hauek, Felix Etxeberriak (EHUko irakaslea) egin izan duen bezala. Dena den, arriskuei buruzko eztabaida horiekin lotuta, interesgarriak iruditzen zaizkigu David Williamson Shaffer-ek (Wisconsin-Madison Unibertsitatea, AEB) www.epistemicgames.org bere web orrian askotan egiten dizkieten galderi emandako erantzunak:

“Bai, umeentzako kaltegarriak izan daitezkeen bideo joko asko daude, umeentzako kaltegarriak izan daitezkeen telebista programa eta liburu asko dauden bezala. Jakin behar genuke gauzak bereizten, eta garbi edukitzen bideo joko asko ez direla umeentzako egokiak (...) Beraz, hezitzaileek arlo horri buruzko informazioa eta hezkuntza eduki behar lukete, umei joko aproposak aukeratzeko (...) Eta bai, jendea adikzioaren eror daiteke gustatzen zaion edozer gauzarekin. Adin txikikoek oreka eduki behar lukete egiten dituzten jardueren artean: liburuak irakurri, arte eta eskulanak landu, kirola eta ariketa fisikoa egin... Baina horrek ez du esan nahi joko elektronikoa debekatu egin behar zaizkienik”. (epistemicgames.org).

Gure kasuan, fenomenoaren beste alderdi batzuk aztertu nahi izan ditugu: batetik, bideo jokoaren erabilerrari buruzko Euskal Herriko datuak jaso eta aztertu nahi genituen; bestetik, bideo jokoek eskaintzen dituzten aukerak probatu nahi genituen, Kataluniako F9 eta horrelako ikerketa taldeen lanetan oinarrituta.



G

Bideo jokoak Euskal Herrian

Euskal nerabeen artean bideo jokoan erabilera aztertzeke egin den inkestaren emaitzak

2008ko ekainean, sei eskolatako 11 eta 18 urte bitarteko 435 nerabek inkesta bati erantzun zioten; ziurrenik, bideo jokoan erabilera neurtzeko Euskal Herrian egiten den lehen inkesta da. Las Korain (Tolosa), Karmelo-Etxegarai (Azpeitia), Gurutzeta (Barakaldo), Ballonti (Portugalete) eta Miguel de Cervantes (Gasteiz) eskolatan eta ikastolatan egin zen inkesta. Inkesta diseinatu eta emaitzak aztertzeke emandako laguntzagatik eskerrak eman nahi genizkioke Juan Etxeberria irakasleari (Euskal Herriko Unibertsitatea, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Hezkuntzako Ikerketa eta Diagnosi Metodoen Saila). Fenomeno hori aztertzeke egin den hurbilpen soziologiko-kuantitatiboaren helburua honako galdera hauei erantzutea zen:

Zenbat nerabe euskaldunek erabiltzen dituzte bideo jokoak?

Zer maiztasunekin eta zenbat denboran jokatzen dute?

Zer joko erabiltzen dituzte?

Zein dira bideo jokorik gogokoak?

Zer erlazio dago bideo jokoan eta eskola errendimenduaren, aisialdiko jardueren eta beste zenbait eragileren artean?

Inkesta horren arabera, Euskal Herriko gazteen gehiengoak erabiltzen ditu bideo jokoak, ia % 80ak (79,1). Datu hori bat dator Ekonomia Lankidetzara eta Garapenerako Erakundeak (OECD) gainerako herrialdeetako datuekin, baina Ameriketako Estatu Batuetako batez bestekoaren azpitik dago, han 12 eta 17 urte bitarteko nerabeen % 95ek jokatzen baitu; eta Espainiako batez bestekoaren gainetik dago, hori ez baita % 70era iristen. Mutilen artean, % 97k erantzun du bideo jokoak erabiltzen dituela, eta nesken artean % 62k. Beraz, dirudenez, gai honetan ere genero ezberdintasunak badaude, gainerako ikerketa gehienek adierazi izan duten moduan. Adinari dagokionez, gazteenek erabiltzen dituzte gehien bideo jokoak (11 urteko guztiek erabiltzen dituzte!), adinak gora egiten duen neurrian bideo jokoan erabilera gutxitu egiten da.



Maiztasunari dagokionez, erantzunen banaketa nahiko ezberdina eta erregularra da: nahiko modu antzekoan banatzen dira hilean behin, astean behin, astean bizpahiru aldiz eta egunero jolas egiten dutenak. Hori bai, galdera gehienetan bezala, hemen ere neska eta mutilen arteko ezberdintasunak agertzen dira, mutilek gehiago jokatzen dute. Eta adina ere aldagai diskriminatzailea da, lehenago esan dugun moduan gazteenek jokatzen baitute gehien (dena den, 18 urtekoen artean gehiago dira egunero jokatzen dutenak 11 urtekoen artean baino).

Bideo jokoan erabilera maiztasuna

	Hilean behin	Astean behin	Astean 2-3 aldiz	Egunero	
Neskak	% 47.7	% 25.8	% 16.1	% 10.3	% 100
Mutilak	% 11.2	% 22.8	% 37.9	% 28.2	% 100
11 urtekoak	% 17.1	% 19.5	% 48.8	% 14.6	% 100
18 urtekoak	% 40.5	% 4.8	% 26.2	% 28.6	% 100
Denetara	% 27	% 24	% 28.7	% 20.4	% 100



Galdetu diegunean ea zenbat jolasten diren, gehiengo oso zabal batek, eskola egunetan 0-2 ordu artean jolas egiten duela erantzun du, antzeko ikerketa gehienekin bat datorren datua. Jai egunetan, ordea, talde handi batek, bi eta lau ordu artean jolas egiten duela erantzun du, eta talde txiki baina esanguratsu batek, lau ordu baino gehiago (“oso jokalaria” izena eman diogun talde horretako %90 mutilak dira).

Zenbat jolasten den

	Egunean 0-2 ordu	2-4 ordu	4 ordu baino gehiago	
Eskola egunetan	% 96.3	% 3.4	% 0.3	% 100
Jai egunetan	% 61.5	% 28.8	% 9.8	% 100

Joko mota balioetsiena “akzioa eta abentura” motakoa da: 0-10 artean (0 “ez zait batere gustatzen” litzateke, eta 10, “izugarri gustatzen zait”), zazpiko batez bestekoa (6.95) eman diote inkesta erantzun dutenek. Ondoren datoz “kirola eta lasterketak”, “simulazioa”, “borroka-gerla-tiro jokoak”, “estrategia-plataforma-labirinto” motakoa, eta, azkenik, “rol jokoak”. Oro har, mutilei gehiago gustatzen zaizkie bideo jokoak, batez besteko altuagoak baitituzte mota guztietan. Gainera, euren bideo joko mota gustukoenen zerrendak baditu ezberdintasun batzuk nesken zerrendarekiko: mutilen zerrendan, “kirol eta lasterketa” motako jokoak agertzen dira lehenengo postuan (7.75ko batez bestekoa), eta “borroka-gerla-tiro” motakoak bigarren postuan; nesken kasuan, “kirol eta lasterketa” motakoak laugarren postuan agertzen dira, batez besteko baxuagoarekin, eta “borroka-gerla-tiro” motakoak azken tokian geratzen dira, batez bestekoa ez da bostera iristen (3.58).

Beraz, mutilei “borroka-gerla-tiro” jokoak asko gustatzen zaizkie, eta neskei gutxi. Nesken kasuan, “akzioa-abentura” da lehenengo geratu den bideo joko mota, “simulazioa” bigarren eta “estrategia-plataforma-labirinto” motakoa hirugarren. Ikusten denez, zerrendaren ordena eta batez besteko puntuazioak ezberdinak dira. Adinaren arabera ere ezberdintasunak topatu ditugu: gazteenei gehiago gustatzen zaizkie bi-

deo jokoak, puntuazio altuagoak eman baitituzte mota guztietan (eurek eman dute inkestako puntuazio altuena, 8.24, “akzioa eta abentura” bideo jokoan).

Zehazki euren bideo joko gustukoenen zein den ere galdetu genien, eta *Pro Evolution Soccer* aukeratu zuten berriek, “kirola” motan sartzen den futbol simulatzaile ezagunenetakoa. *Grand Theft Auto (GTA)* geratu da bigarren, batez ere “akzioa-abentura” motakoen artean definitu izan dena, baina beste genero batzuk ere ukitzen dituena (simulazioa, borroka, lasterketak, estrategia...). Kasu horretan, aipagarriena da 18 urtetik gorakoentzako gomendatuta dagoen bideo joko delako, eta 11-17 urte arteko ume eta gazteek euren joko gogokoenen artean bigarren postuan jarri dutela. Zerrendak honela jarraitzen du: *Mario Bros* (plataforma-labirintoa), *Sims* (simulazioa), *FIFA* (futbola), *NBA* (saskibaloia), *Need for Speed* (lasterketak), *Sing Star* (simulazioa-musika), *Gran Turismo* (lasterketak), *F1* (lasterketak), *Pressing Catch*, *Tekken*, *Coun-*

ter Strike, *Medal of Honor*, *WWE*, *Call of Duty*, *Dragon Ball*, *Good of War* (borroka-gerla-tiro), *Eye Toy Play*, *Wii Sports* (kirola)... Dena den, hemen aipagarria iruditzen zaigu erantzunen barreiatzea, 100 joko ezberdin baino gehiago aipatu baitizkigute. Dena dela, nabarmentzekoa da aipatu dizkiguten joko horiek Europako gainerako herrialdeetan, AEBetan edo Japonian aipatzen diren joko berberak direla (Euskal Tebistaren zenbait joko eta Ikastolen Elkarteko zenbait joko salbu). Hau da, gure hasierako hipotesia baieztatzuz, bideo jokoena oso adibide garbia da produktu kultural berriek dakarten berdintasun edo homogeneizazioaren teoria baieztatzeko. Euskal Herrian, mundu industrial edo postindustrial guztian erabiltzen dituzten bideo joko berdinekin egiten dute jolas.

Gurasoei buruz ere galdetu diegu, eta honako hauek izan dira emaitzak: inkestari erantzun dioten gehienei, gurasoek ez diete denbora mugarik jartzten bideo jokoekin jolastean (% 29.2k “inoiz ez” erantzun dute, eta % 12k “gutxitan”); gehienetan gurasoek ez dute parte hartzen zein bideo joko erabili erabakitzeke garaian (% 34.5ek “inoiz ez” erantzun dute); eta guraso gehienak ez dira saiatzen euren seme-alaben bideo jokoak ezagutzen eta kontrolatzen (euren seme-alaben % 32k behintzat dio ez direla inoiz saiatzen).

Inkestaren azken zatian, bideo jokalaria eta ez jokalarien artean ezberdintasunik ba ote dagoen aztertu dugu zenbait gairi dagokionez: eskolako emaitzak, teknologia berriekiko interesa eta erabilera, aisialdi ohiturak...



Bideo jokoak Euskal Herrian

Eskolako emaitzak, aisialdi ohiturak...

Eskolako emaitzei dagokienez, ez da ezberdintasun aipagarririk ikusten bideo jokoetan jolasten direnen eta jolasten ez direnen artean, eta egotekotan, ezberdintasun txiki horiek bideo jokalarien aldekoak dira (nota hobeak ateratzen dituztela esaten dute). Baina oso jokalaria direnen kasuan (jai-egunetan lau ordu baino gehiago jolas egiten duen % 10 hori) igo egiten da nota txarren ehunekoak:

Aisialdiari dagokionez, bideo jokalariek bideo jokoetan jokatzeko ez dutenek baino kirol gehiago egiten dute eta gutxiago erabiltzen dute ordenagailua aisialdian (datu horiek ez dituzte baieztatzen jendearen ohiko usteak), baina, bestetik, gutxiago egoten dira lagunekin, eta gutxiago irakurtzen dute (kasu horretan baieztatu egiten dira uste horiek, nahiz eta ezberdintasun horiek ez direla izugarrikoak kontuan eduki behar den baita ere).

Oso jokalarien kasuan, gainerakoek baino kirol gehiago egiten dute, baino gutxiago egoten dira lagunekin, gutxiago irakurtzen dute, eta gehiago erabiltzen dute ordenagailua.

Teknologia berrien erabilerari dagokionez, gure inkestako datuek ez dute baieztatzen honako aurreiritzi edo mito hau: bideo jokalaria ez da teknologia berrien mendera eroritako frikia, ez behintzat bideo jokoetan jolasten ez direnen bere adinekoak baino gehiago (salbuespen gutxi batzuekin: adibidez, oso jokalariek gainerakoak baino gehiago erabiltzen dute Internet).

Nola balioetsiko zenituzke zure eskolako emaitzak?

	Ez-jokalaria	Bideo jokalaria	Oso jokalaria
Oso txarrak	% 1.2	% 1.5	% 2.9
Txarrak	% 6.2	% 5.3	% 14.7
Ertainak	% 30.9	% 27.2	% 26.5
Onak	% 37	% 41.4	% 35.3
Oso onak	% 24.7	% 24.6	% 20.6
	% 100	% 100	% 100

Zer egiten duzu aisialdian?

	Kirola			Lagunekin egon		
	Ez-jokalaria (Ez-J)	Bideo jokalaria (BJ)	Oso jokalaria (Oso-J)	Ez-J	BJ	Oso-J
Inoiz ez	% 10.1	% 4.1	% 2.9		% 0.6	
Gutxitan	% 21.5	% 15.1	% 5.7		% 3	
Batzuetan	% 34.2	% 29.3	% 34.3	% 16.5	% 22.8	% 31.4
Askotan	% 34.2	% 51.5	% 57.1	% 83.5	% 73.7	% 68.6
	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Zer egiten duzu aisialdian?

	Irakurri			Ordenagailuaren aurrean egon (Internet, messenger, txat eta abarretan)		
	Ez-J	BJ	Oso-J	Ez-J	BJ	Oso-J
Inoiz ez	% 15.9	% 22.6	% 25.7	% 1.2	% 6	% 2.9
Gutxitan	% 41.5	% 42.3	% 42.9	% 12.3	% 22.9	% 5.7
Batzutan	% 35.4	% 28	% 22.9	% 42	% 35.8	% 40
Askotan	% 7.3	% 7.1	% 8.6	% 44.4	% 35.2	% 51.4
	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100



Bideo jokoak eskolan erabili eta lantzeko proposamen bat

Gure ikerketaren bigarren helburua eskoletan bideo jokoak erabili eta lantzeko lantegi edo esperimendu bat eraiki eta frogatzea zen. Saio horren helburuak hauek izan dira:

(1) Askotan errepikatzen den be-lanaldi berrien eta eskolaren arteko banaketa gainditzea. Gure kasuan, "pantailak" (funtsezko elementuak ume, nerabe eta gazteen eguneroko bi-zitzan) eskolan sartzeko saiakera xume bat proposatu nahi genuen.

(2) Bideo jokoei buruzko begirada gogoetatsu eta kritiko bat lantzen has-tea (zenbait autorek "pantailak ikusten ikasi" edo "ikus-entzunezkoen peda-gogia" izenez bataiatu duten horren har-ira). Izan ere, azken mendeetan testu idatziak irakurtzen, aztertzen eta one-nak balioesten ikasi den bezala, beha-rezkoa dirudi baita ere orain "testu" berri hauek aztertzen ikastea. Ikus-en-tzunezko gizartean zinea edo/eta tele-bista erabili izan diren bezala ikasteko (bi zentzutan: "pantailak ikusten ikasi", edo "pantailak ikasteko erabili"), gauza bera egitea proposatzen da orain bideo jokoekin, alfabetizazio digitala lortzen lagundu dezaketelakoan.

(3) Teknologia berriekin, pantai-lekin eta, gure kasuan, zehazki bideo jokoekin, gauza interesgarriak ere ikas daitezkeela erakustea (zenbait autorek "pantailak ikasteko erabili" edo "peda-gogia ikus-entzunezkoekin" izenez bataiatu duten horren bidetik).

Gure saioetarako lehen eskema edo gidioia honako hau izan zen:

BIDEO JOKOAK ESKOLAN. LANTEGI EDO ESPERIMENTURAKO LEHEN GIDIOIA

1. Kontrabaliok (indarkeria, sexismoa, arrazakeria, etab.) sustatzen dituztelako polemikoak diren bideo jokoei buruzko hausnarketa.
2. "Bideo joko serioetan" jolastu, ikusteko joko mota ezberdinak daudela, film edo telebista programa ezberdinak dauden bezala.
3. Egindakoari buruzko eztabaida.

Eskema edo gidioi horrekin, hu-rrengo pausoa jokoak aukeratzea izan zen. Lehenengo zatirako, *Grand Theft Auto (GTA)* eta *Bully* aukeratu genuen, gure ustez oso ongi betetzen zituztelako gure helburuak: lehenago ere aipatu dugun moduan, *GTA*n jokalariak bideo jokoak agintzen dizkion "misio" batzuk bete behar ditu, eta eginkizun horietako gehienak gutxienez "polemikotzat" definitu genitzake: norbait jipoiu, autoak lapurtu (hortik jokoaren izena, "*grand theft auto*", ingelesez "auto lapur handia" baita), droga lortu... Gainera, lan horiek betetzen diren bitartean, gogoia izanez gero, bes-telako "gauzak" ere egin daitezke: pu-tetxeetara joan, autoan zoazen bitarte-an jendea harrapatu... *Bully* bideo jo-koa eskola batean kokatzen da, eta protagonistak (jokalariak) indarkeria erabili beharko du gainerako ikasleen aurka. Eskola jazarpenari buruz hitz egiteko primerako materiala da, beraz (*bully* ingelesezko hitzak, aditza dene-an ikaratu edo larderiatu esan nahi du, eta hitza denean, harroputz, handiputz edo larderiatsu).

Baina, era berean, konturatzen hasi ginen, ezin izango genuela bideo joko-en erakargarritasun handienetako bat

(elkarreragina, jokalariaren parte har-tzea) erabat aprobeztatu, *GTA*ren az-ken bertsioa (*GTA-4*) eta *Bully* kontso-la bidez bakarrik jolastu baitaitezke mementoz, eta eskoletan ez baitago kontsolarik. Beraz, saioaren lehenen-go zatian bideoak erabiltzea erabaki genuen (guk jolastutakoaren grabake-ta edo *youtube*-tik hartutako zatiak), eta bigarren zatirako ordenagailuetan jolastu zitezkeen bideo jokoak aukera-tu genuen: *GTA*-San Andreas (bideo joko polemikoen artean sailkatzen den horietako bat), *Contra viento y marea* (etorkinen egoera "bizitzeko" aukera ematen duen Nazio Batuek prestatuta-ko joko serioa), eta *McDonalds* (zabor janaria eta enpresa munduari buruzko hausnarketa piztu nahi duen bideo jo-ko serio eta kritikoa, Molleindustria-k diseinatutakoa). Horrela geratu zitzai-gun, beraz, azken gidioia:



Bideo jokoak Euskal Herrian

Bideo jokoak eskolan

BIDEO JOKOAK ESKOLAN. LANTEGI EDO ESPERIMENTURAKO GIDOIA

1. Aurkezpena.
2. Bideo joko zatiak ikustea.
 - 2.1. *Grand Theft Auto-4* bideo joko
 - 2.2. *Bully* bideo joko
3. Bideo jokoekin jolastea.
 - 3.1. *Grand Theft Auto- San Andreas* bideo joko
 - 3.2. *Contra viento y marea* bideo joko
 - 3.3. *McDonalds* bideo joko
4. Lehendabizi talde txikietan eta gero talde handian aztertu egin duguna.

Gidoi horrekin lau saio egin genituen 2008ko udazkenean. Lehenengo biak Azpeitiko Urola Ikastolan, eta, hirugarrena eta laugarrena, Tolosako Laskorain Ikastolan. Lehenengo bietan, ordubete eduki genuen bakoitzean, DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako gela batean (14 urte) eta Batxilergoko Lehenengo Mailako beste gela batean (16 urte) lan egin genuen. Geneukan denbora kontuan hartuta, GTA-4 bideo jokoaren bost minutuko bideo bat grabatu genuen, guri interesatzen zitzaizkigun zati batzuekin (auto lapurretak, borrokak, emakumearen trataera sexista...). *Bully* jokoaren beste bost minutuko bideo bat ikusteko *youtube* erabili genuen (bideo asko jartzen dituzte sarean jokalariek, bideo jokoak ezagutzen hasteko balio dezaketanak). Bideoak ikusi ondoren, *GTA-San Andreas* ekin hasi genuen jolasen blokea (horretarako, aurretik ordenagailu guztietan kargatu behar da jokoak), eta, gero, Internet bidez jolastu ginen beste biekkin (*contravientoymarea.org* eta *molleindustria.org/mcdonalds*).


Orokorrean, oso ondo atera ziren, guk nahi bezala: ikasleek erabat motibatutik hartu zuten saioa, eta balio izan zuten bideo jokoei buruz hitz egiteko (zenbait bideo jokotan ikusten diren portaera eta balio polemikoak, bideo jokoen arteko ezberdintasunak...). Saioak ikusi zituzten irakasleei eta IKTen arduradunari hiru galdera motz eman genizkien:

1. Zer iruditu zaizue saioa?
2. Horrelako saioak egiten dituzunean, zein dira aukerak eta gaitasunak?
3. Eta oztupoak?

Erantzun zutenen balioespena ere erabat positiboa izan zen, oso proposamen interesgarria iruditu zitzaien (“etik lan lantzeko, balioei buruz hitz egiteko, ikusten dutenari buruz hausnartzeko...”). Hurrengo saioetarako, berriz, bai irakasleak, bai IKT arduradunak eta bai guk bi gauza berriro pentsatu behar zirela ikusi genuen: batetik, eta adinari dagokionez, guk planteatutako helburu, metodologia eta jokoekin, zaharra-goekin saioa hobeto ateratzen zela ohartu ginen; bestetik, eta denborari dagokionez, ordubete motz geratzen zela egin nahi genuen guztia egiteko.

Horregatik, hirugarren eta laugarren saioetan Batxilergoko 1. eta 2. mailekin lan egin genuen (16 eta 17 urte), eta saio bakoitzerako bi ordu izatea lortu genuen. Horrek aukera eman zigun saioak lasaiago eta hobeto egiteko, bideo joko bakoitza ikusteko edo bideo jokoekin jolasteko, eta, ondoren, ikasleek honako galdetegi honi erantzun zioten idatziz (10. taula):





BIDEO JOKOAK ESKOLAN. LANTEGI EDO ESPERIMENTUA. IKASLEENTZAKO GALDETEGIA

1. Zer iruditu zaizu lehenengo bideoa (GTA-4)? Zer portaera mota, pertsona mota, eta balio azaltzen dira hor? Zer trataera ematen zaio emakumeari? (Zer gairekin lotzen da emakumea?)
2. Zer esan dezakezu ikusi dugun bigarren bideoari buruz (Bully)? Nabaritu al duzu kontraesanik eskolak edo familiak "eskola indarkeriari" buruz daukan diskurtsoaren eta bideo joko horren diskurtsoaren artean?
3. GTA-San Andreas bideo jokoak. Zer esango zenuke joko horri buruz? Zer portaera mota, pertsona mota, eta balio azaltzen dira hor?
4. Zer iruditu zaizue Contra Viento y Marea jokoak? Zein da gaia? Eta jokoaren azken helburua? Dibertigarria iruditu al zaizue? Zuen ustez, mundu errealean gertatzen denarekin zerikusirik ba al dauka?
5. Zer iruditu zaizue McDonalds bideo jokoak? Zein da gaia? Eta jokoaren azken helburua? Dibertigarria iruditu al zaizue? Enpresako nagusiaren tokian jarrita, zer zailtasun aurkitu dituzue? Eta nola konpondu dituzue zailtasun horiek? Zein da enpresaren helburua?
6. Nabaritzen al duzue ezberdintasunik ikusi edo probatu ditugun bideo joko horien artean? Zein dira ezberdintasun horiek?

Hirugarren eta laugarren saio horien amaieran bideo jokoaren aukerei eta arriskuei buruzko rol joko bat ere egin genuen. Gela erdiak "bideo jokoaren alde txarrak bakarrik ikusten dituzten gurasoen rola" antzestu behar zuten, eta beste erdiak, "bideo jokoek alde onak ere izan ditzaketela uste duten gurasoen rola". Talde bakoitzak hamar argudio bilatu behar zituen bere jarrera arrazoitzeko. Bideo jokoaren aurka ateratzen diren argudioak: "adikzioa sortu dezakete; askotan indarkeria erabiltzen dute; errealitatetik kanporatzen gaituzte; negozioa dago atzean; estereotipoak sortzen dituzte; ikusmenerako txarra da; 'interesatzen zaiena' erakusten dute". Aldekoak: "denbora pasatzeko onak dira; haurtzaindegi funtzioa bete dezakete (gurasoek, seme-alabekin egon beharrean, bideo jokoak erabil dezakete umea entretenitzeko); bideo joko batzuk gauza onak erakusten dituzte; lagunekin jolasteko aukera ematen dute".

Ondorioak

Garbi dagoena da pantailek (tartean bideo jokoak, baina horiez gain Internet, telebista, mugikorrak, zinema...) belaunaldi berrien gizarteratze prozesuan garrantzi handia dutela, eta beharrezkoa dela harreman horretan zer gertatzen ari den gogoetaren bidetik, kritikoki eta zientifikoki aztertzea. Hori dela eta, ikerketa honek ("Bideo jokoak - Nerabeak - Hezkuntza, Euskal Herrian") elementuen arteko erlazioa aztertzea izan du xede.

Ikerketaren lehen helburua nerabe euskaldunek bideo jokoak zenbateraino erabiltzen dituzten aztertzea izan da. Eta ondorioek erakutsi dutenez, Euskal Herria erabat integratuta dago Kontsumo Globalaren Gizartean. 11 eta 18 urte bitarteko gazte euskaldun gehienek (% 80) jokatzen dute bideo

jokoetan. 8 urterekin hasten dira. Mutikoek gehiago jokatzen dute neskek baino, eta 11 urtekoek gehiago jokatzen dute 18koek baino. Gogokoek dituzten bideo jokoak munduko beste edonongo gazteek gogokoek dituzten berberak dira: Pro Evolution Soccer, Grand Theft Auto (18 urtetik gorakoentzako jokoak), Mario Bros, Sims, Fifa, NBA... Hau da, gure garaiko gehiegizko kultur homogeneizazioa defendatzen dutenen teoriaren adibide garbia dira. Joko berri horiek sor dezaketean adikzioari dagokionez, esan dezakegu "asko" (agian gehiegi?) jokatzen duela erantzun dutenen arteko % 10ak. Eta bideo jokoaren mende egon daitezkeela. Horiek esan baitute jai egunetan lau ordu edo gehiago aritzen direla bideo jokoekin jolasean. Baina, oro har, ez da baieztatzen bideo jokalariren estereotipoa: mutil gazte arraro edo frikia, bizitza guztia bere logelan bakartuta igarotzen duena, indarkeriaz betetako jokoaren mende dagoena... Jokalari gehienek aisialdiko ohitura antzekoak dituzte, eskola errendimendua ere antzerakoa dute, eta jokatzen ez dutenen pareko jarrerak dauzkate teknologia berriekiko. Bestalde, horrek guztiak badu zentzua, gazteen arteko gehiengoak (% 80) baita bideo jokalaria. Ezberdintasun esanguratsuak "oso jokalariek" diren eta gainerakoaren artean nabari dira (eskola errendimendu kaskarragoa, gutxiago irakurtzen dute, lagunekin denbora gutxiago igarotzen dute...). Gainera, oro har, gazteei bideo joko mota asko gustatzen zaizkie (kiroleta-kokoak, akziozkoak, abenturazkoak...), eta sarritan jokatzen dute beste pertsona batzuekin eta beste pertsona batzuen aurka.

Beraz, ez dugu beti txartzat hartu behar bideo jokoetan jokatze hutsa.

Bideo jokoak Euskal Herrian



Komenigarria da analisiak eta ikerketak doitzea, hots, zenbat eta zertan jotzen den zehaztea. Mota askotako liburua eta mota askotako telebista saioak dauden moduan (denbora pasatzeko bakarrik balio duten saioak, adin txikikoentzako baimendu gabe dauden saioak eta saio hezigarriak), bideo jokoak ere mota askotakoak daude. Eta beste horrenbeste esan behar da jokatzeko erabiltzen den denborari buruz ere: “bideo jokoetan jokatzeko denbora galtze hutsa da” baieztatzea gehiegi orokortzea izango litzateke. Haste-ko, adin txikioak diren zenbaitek oraindik badaukatelako beren denboraren zati bat “galtzeko” aukera, eta hori, zortea dela esan dezakegu. Bestetik, erabiltzen den denbora zehaztea eta ezberdintzea garrantzitsua delako (ez da gauza bera egunean ordubete jokatzea ala lau orduz jokatzea). Eta, azkenik, ikusi egin beharko litzateke beste zein jarduerari kentzen zaion denbora hori eta zein bideo joko erabiltzen duten (hobe izango litzateke bideo joko serio batean aritzea telebistako saio kaskar bat ikustea baino).

Gure ikerketaren bigarren zatirako zenbat saio diseinatu eta probatu ditugu, fenomeno hau modu hezitzaile batean lantzeko. Lantegi edo esperimentu horiek oso ondo aterara dira. Saioetan parte hartu duten nerabeek aukera izan dute bideo jokoei buruz hitz egin eta hausnartzeko. Aukera izan dute bideo joko mota ezberdinak daudela ikusteko: gizarteak “kontrabaliu”tzat definitu dituenak sustatzen dituztenak; eta denbora-pasa edo entretenimendua eskaintzeaz gain, gure garaiko arazoei buruz pentsatzeko eta ikasteko balio dutenak. Zehazki, lau lantegi horietan oso emaitza onak eman zituen, adibidez, sexismoari buruzko eztabaidak: GTA-4 bideo jokoaren bideoan strip-tease lokal batera eginiko bisita ikusi ondoren, neskek batez ere gogor kritikatu zituzten emakumeak “sexu makina” bezala aurkezten dituzten jokoak, eta mutilen eta nesken artean gai honi buruzko eztabaida sutsu eta interesgarriak piztu ziren. Horretaz gain, bideo jokoei esker, saio hauetan parte hartu duten ikasleek hitz egin dute indarkeriari buruz ere, eta globalizazioari bu-

ruz, mundu erreal eta birtualen arteko ezberdintasunari buruz... Eta esperimentu horietan ikusi ahal izan dugu baita ere ez dela betetzen bideo joko serioak aspergarriak direla dioen mitoa: parte hartu duten ikasleek onartu arren joko komertzialak hobeak zirela grafiko eta jolasgarritasun aldetik, era berean, adierazi dute entretenigarriak eta onak iruditu zaizkiela guk proposatutako bideo joko serioak (Contra viento y marea eta McDonalds). Esaten zutena egia zela ere ikusi dugu, saioetan erabat motibaturik aritu baitira joko hauetan ere, eta askok Interneteko helbidea eskatu baitigute etxean jolasten jarraitu ahal izateko.

Oztopoei dagokienez, honako hauek azpimarratuko genituzke:

(1) Guk planteatutako bideo jokoe-kin eta metodologiarekin, gazteenei kostea egin zitzaien saioaren helburua ulertzea. Arriskua dago, beraz, batzuek mota honetako saioak jolas ordutzat hartzeko. Horretarako bi irtenbide ikusten ditugu: batetik, gaztegoekin lan egiteko proposamena (jokoak, metodologia...) berriro pentsatzea. Bestetik, hirugarren eta laugarren saioetan egin genuen bezala, hasi aurretik garbi esatea: “lantegi hauek ez dira teorikoak, baina ezta denbora-pasa eta entretenimendu hutsak ere. Helburua da bideo jokoen fenomenoaz aztertzea. Beraz, beharrezkoa izango da koaderno bat edo paper bat, eta idazteko arkatza edo boligrafo bat edukitzea”. Horretaz gain, bideo bakoitza ikusi ondoren edo bideo joko bakoitzarekin jolas egin ondoren, minutu batzuk utzi genizkien guk emandako galderari banaka erantzuteko. Saioaren azken blokean, lehendabizi, talde txikietan euren artean aztertu zituzten galdera horiek, eta, gero, talde handian, eta guk koordinazio lana egin genuen.



(2) Eskola, instituziotzat hartuta, ez dugu oraindik prestatuta ikusi horrelako esperientziak planteatzeko. Arazo-etako bat azpiegiturei dagokiena izan da, adibidez: 1.000 ikasleko eskoletan, bi ordenagailu gela (bakoitza 20 ordenagailurekin) edukitzea ziurrenik ez da nahikoa; gainera, eskoletako batean ordenagailuek ez zeukaten DVD irakurgailurik, eta GTA-San Andreas jokora jolastu beharrean, bideoan erakutsi behar izan genuen. Beste arazo bat irakasleak izan daitezke. Interes gutxi ikusi dugu, orokorrean, irakasleen partetik, eta saioa ikusi beharrean batzuek nahiago izan zuten beste gauza batzuk egiten egon. Eta saioa zer iruditu zitzaizen komentatzeko guk eginiko eskaerari bostetik bik bakarrik erantzun zioten. Arrazoi-etako bat prestaketa falta izan daiteke: ziurrenik euren burua mundu horretatik urruti ikusten dutelako (irakasle-etako batek posta elektronikorik ez zuela erabiltzen esan zigun), ez zaielako orain arte horrelako gaiak lantzearen interesa ikusarazi... Horrekin lotuta, beste arazo bat izan daiteke hezkuntza eta eskolen antolamendua: lehendik ere nahiko beteta dagoen eskola egutegia, curriculum zaharkituak, eskola eta irakasleei gehiegi eskatzea (orain mila gauza berritan izan behar baitute adituak: adimen emozionala, teknologia berriak, balioak, sexua, drogak, garapen jasagarria...).

Edozein modutan ere, gure ikerketarekin erradiografia bat egin dugu, Euskal Herrian bideo jokoaren fenomeno zertan datzan ikusteko. Eta ondorioztatu dugu oso interesgarria eta aberasgarria izan daitekeela bideo jokoak eskolan sartzea, lehenago ere aipatu ditugun bi zentzu horietan: "pantailak ikusten ikasi" eta "pantailak ikasteko erabili".

Bideo jokoaren aukeretan sakondu nahi dutenentzako zenbait erreferentzia interesgarri

-F9 ikerketa taldea (Katalunia): www.xtec.es/~abernat. Begoña Gros da talde horretako koordinatzaileak, eta honako liburu hauek argitaratu ditu: *Jugando con videojuegos: educación y entretenimiento* (1998), *Pantallas, juegos y educación. La alfabetización digital en la escuela* (2004) eta *Videojuegos y aprendizaje* (2008).

- *European Schoolnet* erakundearen *Games in Schools* ikerketa (<http://games.eun.org>). Hor topa daiteke, adibidez, *Videojuegos en el aula. Manual para docentes txostena* (2009).

- Eskoziako gobernuko hezkuntza sailak bultzatutako *Bringing the Computer Games into the Classroom* (www.ltscotland.org.uk/gamesbasedlearning) proiektua.

- Joko serioen mugimendua: Coventry Unibertsitateko (Erresuma Batua) *Serious Games Institute* (seriousgamesinstitute.co.uk), *European Conferences on Games Based Learning* Kongresuak, Danimarkako *Serious Games* enpresa (seriousgames.dk)...

- Joko kritikoen mugimendua: *Bordergames* (bordergames.org), *Ravalgames*, *Molleindustria* (molleindustria.org)...

- James Paul Gee-ren liburuak: *Lo que nos enseñan los videojuegos sobre el aprendizaje y el alfabetismo* (2004) eta *Good Video Games and Good Learning: Collected Essays on Videos Games, Learning and Literacy* (2007).

- Marc Prensky: *Digital game based learning* (2001) eta *Don't Bother Me Mom, I'm Learning!* (2006) liburuak eta web orria: gamesparentsteachers.com

- D. W. Shaffer-ek zuzentzen duen *Epistemic Games* esperientzia (epistemicgames.org) eta honen *How computer games help children learn* liburuak.

- SPIDER (*Smarter, People Through Interactive Digital Entertainment Resources*) Kataluniako ikerketa taldea eta proiektua: <http://spider-uoc.blogspot.com>.

- Kurt Squire-n (Indianako Unibertsitatea, AEB), gameslearningsociety.org web orria.

- Ted Henning-en (National University, Kalifornia) *Brain Meld* proiektua (*Bridging the gap between gaming and education*): brainmeld.org



anjel lertxundi

ELKARRIZKETA

Idazlea

“Zuk zeuk irakasten ari zaren horren gaineko irrikarik ez baduzu, alferrik ari zara transmititzen. Eta euskararekin ere, gauza bera gertatzen da.”



anjel lertxundi

E

“14 urtera arte, erabateko ardatza hizkuntza da. Matematika hizkuntzaren bidez irakasten da, geografia hizkuntzaren bidez irakasten da, irakasgai guztiak hizkuntzaren bidez irakasten dira, eta, nolabait, hizkuntza erregistro ezberdinen –abstrakzioa, deskriptiboa, adierazlea...– antolamendua litzateke eskolak irakasten duena.

”

Umetatik izan zuen argi Andu Lertxundik (Orioa, 1948) zerbait izatekotan, idazle izan nahi zuela. Eta horretan eman du ia bere bizitza osoa. Dena den, idazle baina gehiago izan da; irakasle, kazetari, gidogile eta zinema zuzendari ere aritu baita lanean. Euskaltzain urgazlea da eta Euskal Idazleen Elkarteko lehen presidentea izan zen. Zarautz du, bizileku eta han bildu da Hik Hasirekin. Bere irakasle garaiei buruz ez ezik, egungo hezkuntzaren inguruan ere hitz egin du.

Irakaskuntzan aritu zineneko urteak nola gogoratzen dituzu?

Nik bi aro izan nituen irakaskuntzan. Lehena, hemen, Zarauzko ikastolan, eta bigarrena, Irakasle eskolan. Beti esaten dut nire onenak ikastolako garaian eman nituela. Garai zailak ziren. 1972-1976 urteen artean izan zen, eta orduan sortzen ari ziren hainbat ikastola. Orduan, eginbehar handi bat zegoen gurasoak animatze aldera. Batetik, haurrikastolara lasai bidalitzaten, eta, bestetik, lasai egon zitezen gaztelania ikasiko zutela eta. Beti esaten nien gurasoei, guk nahi izango ez bagenu ere, eta gurasoek eta gizarte osoak nahi ez balute ere, lasai egoteko, ikasiko zutela.

Hori dela eta, ikastola askotan ibili nintzen gurasoei-eta hitzaldiak ematen. Nolabait, alde horretatik, gurasoen pedagogia eginez. Horrek esan nahi zuen, orduz kanpo, batean Mutrikura, bestean Elgoibarrera, bestean Ordiziarra... ibiltzen nintzela, gurasoekin egoteko eta hitzaldi batzuk emateko. Nolabait propagandista moduan edo. Garrantzi handiko lana izan zen.

Horiek dira lehenengo garai hartatik oroitzen ditudanak. Eta, bueno, lan asko egin izanaren oroitzapena, eta nik nuen guztia, ondo edo gaizki, eman izanarena.

Ondoren, Irakaskuntza eskolakoa beste mota bateko lana izan zen. Nire-

tzat, oso pozgarria izan zen, Irakasle eskolara joan nintzenean, Zarauzko ikastolan nire ikasleak izan zirenen artetik kopuru handia irakasle izateko ikasten ari zela ikustea. Ez dut esango nihatik izan zenik, irakasle talde guztiarengatik zen, eta pentsatu nuen: “Zerbait ongi egiten genian, hauek ere irakasle izan nahi baldin badute”. Hori poz handia izan zen.

Horien aurretik ez zuen jende askok irakasle izan nahi. Ez zegoen irakasle euskaldunik...

Gurean ere irakasle falta izugarria zen. Batez ere, ikasleek zenbat eta ardurago egin, orduan eta eragozpen gehiago zeuden irakasleak aurkitzeko. Beti genbiltzan horrela. Gogoan dut, adibidez, nik Salamancan ezagutu nuela Mariasun Landa. Hark artean ez zekien euskaraz, zerbait ulertzen zuen, baina jakin ez zekien. Eta orduan, animatu egin nuen, ikasteko borondate izugarria baitzuen. Laster jarri zen, eta ikasi egin zuen. Horrelako egoera asko zeuden. Hantxe ibiltzen ginen, non amuren bat botako, irakasleak azaltzeko.

Irakasle eskolan izan nuen esperientzia oso lotuta zegoen nire idazle lanarekin. Literaturako eskolak ematen nituelako, literatura unibertsala, generoak... horrelakoak, baina haur literatura ere ematen nuen. Eta inoiz, hizkuntzaren didaktika ematea ere egokitu zitzaidan. Nik hizkuntzaren didaktika ematen nuenean, nik neuk hizkuntzarekin izandako esperientziatik ematen nuen.

Azkenean, uste dut hizkuntzaren didaktikan garrantzitsuena dela hizkuntzaren beraren gozamina transmitzea, eta hori hizkuntzaren beraren bidez soilik transmiti daiteke.

Egun, irakaskuntzatik urrun, nola ikusten duzu hezkuntza?

Nik eskolaren beraren martxa ez dut zehatz-mehatz ezagutzen. Egia da oraindik ere joaten naizela, eskola eta institutu batzuetara. Lau edo bost bisita egiten ditut urtean, eta egoera ezberdi-

nak ezagutzen ditut. Saiatzen naiz, gainera, Gipuzkoakoak ez diren eskoletara joaten, horiek, Gipuzkoakoak, gehixeago ezagutzen ditudalako.

Esaterako, urtero, Burlatara (Nafarroa) joaten naiz. Han, badago literatura irakasle bat, ikasleak asko motibatzen dituena. Ondoren, zu hara joaten zarenean, asko nabaritzen da hori. Erabat. Nik beti esaten dut inork ez duela ematen barruan ez daukana. Ez da posible.

Zuk zeuk irakasten ari zaren horren gaineko irrikarik ez baduzu, alferrik ari zara transmititzen. Eta euskararekin ere, gauza bera gertatzen da. Nik, batez ere, hizkuntzaren perspektibatik egingen dut beti hausnarketa.

Hori orokortuko al zenuke?

Bai, uste dut baietz. Kimika bizi duenak eta kimika gogoko duenak sentimendu hori transmititu egiten du, ez badu nahi ere. Irakaslea arituko da, demagun, etengabe ikasleei esaten irakur dezatela, irakurtzea garrantzitsua dela... Baina irakasle horrek irakurtzen ez badu, ikasleak sekula santan irakurtzen ikusten ez badu, erabat diskurtso hipokrita izango da. Ikasleak irakurriko du gogoak ematen diolako, baina ez, andereñoak edo irakasleak esan diolako. Alderantziz, ordea, irakurketarako zirrara hori erakusten badu, ez die, agian, denei transmitituko, baina baten bat harrapatuko du.

Ikusten al duzu hezkuntzan hutsune garrantzitsuren bat? Edo zerbait soberan?

Lehendabizi, kontu bat aipatuko nuke, oso kanpotik begiratuta. Susmo bat da. Ezin dut ezer guztiz ziur esan, baina iruditzen zait irakaslearen lana gehiegi burokratizatu dela. Eta irakasleak, neurri handi batean, irakastearen ofizinaltasun ere badirela... Hainbeste txosten, eta hainbeste gorabehera. Ez dakit horiek guztiak beharrezkoak diren, baina garai bateko transmisio personalari indarra kentzen dio horrek guztiak. Eta irakaskuntzan, ebaluazioa garrantzitsua da, baina bukaera baino ez da. Ebaluazioak ez du inoiz helburu



izan behar, helburua ebaluatu behar duzuna da. Ebaluatu behar duzun hori, zuk ondo azaltzen baldin baduzu, ebaluatzen ez bada ere, berdin izango da. Baina helburua ebaluazioa bera bihurtu dela iruditzen zait.

Batzuetan inpresioa daukat, entzuten dudanagatik, eta baditut irakasleak inguruan, burokraziaren sarean harrapatuta daudela. Eta horrekin kezkatuegiak, benetan beren lanarekin kezkatu beharrean. Susmoa da, nolabait daukadan inpresio bat. Guk behintzat ez geneukan kontu bat da, eta horrek arriskua duela iruditzen zait. Ebaluatu egin behar da, dudarik ez dago horretan, eta ez dut zalantzan jartzen. Baina ez ote da indar eta energia gehiegi gastatzen bestelako gorabehera horietan?

Nik hizkuntzaren adibidea ezagutzen dut. Hizkuntzaren didaktika, berez, praktikoki ebaluatu ezina da. Baina ebaluatzen da, hain zuzen ere, hizkuntzaren irakaskuntzarako gutxien balio duen eta askotan eragozpena den gauza bat, alegia, gramatika. Sarritan eragozpena besterik ez den kontu bat da, eta horretan energia gastatzea...

Ez dakit hori nola bidera daitekeen, baina arazo handi bat ikusten dut horretan.

Egun irudiak duen garrantziarekin, ahozkotasanak eta irakurketak nolako garapena izan dutela iruditzen zaizu?

Uste dut forma berriak hartzen ari direla. Eta forma berri horietan, dudarik ez dago, ikus-entzunezkoen eragina handia da. Begira gaur egun Interneten idazkuntza zenbat aldatzen ari den. Egunkarietako idazkuntza eta Interneteko ez da bera. Alde batera utzita baldarragoa den ala ez. Ezberdina da. Laburragoa da, saltaka egiten da, txinparta bat hemen, bestea han, link-ak batera eta bestera ibiltzeko...

Horrek esan nahi du, Interneten dabilzan ikasleek, oharkabean ere, sistema horri guztiari jarraitzen diotela, eta beraien funtzionamendu mentala ere sistema horrekin ari dela. Beraz, zer aldatzen ari den hausnartu beharra daukagu. Eta liburua transmisio bide bakarra balitz bezala erabiltzea ez da bide egokia, biak aintzat hartu beharko dira. Baina ez dut uste liburuan soilik oinarritutako sistemak egungo beharrei erantzuten dienik.

Hori idatzari dagokionez, eta ahozkotasanari dagokionez, berriz, kontuan izan behar da, lehen, ahozkotasanaren iturri nagusiak bi zirela: etxea eta

“ Iruditzen zait irakaslearen lana gehiegi burokratizatu dela. Eta irakasleak, neurri handi batean, irakastearen ofizinistak ere badirela... Hainbeste txosten, eta hainbeste gorabehera. Ez dakit horiek guztiak beharrezkoak diren, baina garai bateko transmisio pertsonalari indarra kentzen dio horrek guztiak.

”

kalea. Gaur, etxean, ez da hitz egiten. Bueno, gutxiago hitz egiten da. Azkenean, familia ez da osorik biltzen mahaiaren inguruan, biltzen denean telebista piztuta dago, eta ezin da hitz egin... Orduan, ahozkoztatunaren transmisioan, baina baita balioen transmisioan ere, horren garrantzitsua den iturri horrek indar handia galdu du.

Noski, gurasoek seme-alabekin eguneroko gaiez hitz egiten ez badute, alferrik da. Izan ere, horrelakoetan ez zara bakar bakarrik ahozkotasuna transmititzen ari, eduki batzuk transmititzen ari zara, alegia, zuk duzun munduaren ikuspegia. Baina hori falta baldin bada, ume horiek erreferentziarik gabe daude. Nolabait, telebistako, kaleko, Interneteko... bonbardaketa jasaten ari dira, erreferentzia garrantzitsurik gabe.

Eskolak balioen transmisioan duen garrantzia aipatzen da sarritan. Bai, eskolak balioen transmisioan garrantzia du, baina ez da gurasoen transmisioaren ordezkari. Nahiko balu ere, ezingo luke ordezkatu. Besteak beste, ikasle bakoitza familia batetik datorrelako. Balioen transmisioaren iturri nagusia, noski, familia da.

Ahozkotasunaren eta balioen transmisioa etxetik herrenka baldin badoaz, eskolak bere gain hartu behar al du ardura hori?

Eskola beti da familiaren laguntza bat. Azken batean, eskolarena asma-zioa da, familiak berez bete behar lukeen kontu bat bete ezin duelako. Garai batean, XVII eta XVIII. mendeetan, familia aberatsek irakasle pribatuak kontratatzen zituzten etxerako. Orduan, eskolaren funtzioa horren baliokidea da. Beraz, beti izan da familiaren laguntzaile.

Familia aldatu denean, eta familiak bere lana betetzen ez duenean, ezin da guztia eskolaren gain utzi. Nolabait eskolak eta familiak bat egin beharra daukate. Eskolak familiari ardurak eskatu behar dizkio.

Gizartea, beti, eskolari ari zaio erantzukizunak eskatzen, baina, alderan-

tziz? Eskolak ezin du familia ordezkatu; orduan, familiari ere erantzukizunak eskatu behar zaizkio.

Zein dira, zure ustez, eskolak bete beharko lituzkeen oinarrizko funtzioak?

Balioei dagokienez, nik elementu batean zentratuko nuke eskolaren egitekoa. Eta ondoren, guztia haren inguruan ardaztu. Eta elementu hori berdintasuna da. Diru gehiago duzulako, edo beste kolore batekoa zarelako, edo ideologikoki zure gurasoak ez dakit nola-koak direlako... Ez zara horregatik hobe edo okerragoa izango. Berdintasun horren inguruan, nik zuri ematen dizudana eta zuk niri ematen didazuna parean daude. Nik eskerrik asko edo barkatu esaten dudanean, ari naiz onartzen besteak esaten didana, eta, orduan, bestea onartzen ari naiz, ez da formula sozial hutsa. Formula horren atzean badago filosofia bat, eta, horrelakoak esaten ditudanean, zerbait gehiago adierazi nahi dut.

Eta irakaskuntzari buruz, aldiz, 14 urtera arte, erabateko ardatza hizkuntza da. Baten batek esango du: Normala Lertxundik hori esatea, bera idazle izanda... Baina azaldu egingo dut. Matematika hizkuntzaren bidez irakasten da, geografia hizkuntzaren bidez irakasten da, irakasgai guztiak hizkuntzaren bidez irakasten dira, eta, nolabait, hizkuntza erregistro ezberdinen –abstrakzioa, deskriptiboa, adierazlea...– antolamendua litzateke eskolak irakasten duena.

Matematikako irakasleak esango dizu: “Ni ez naiz hizkuntza irakaslea”. Gezurra. Zu, batez ere, hizkuntza baliatzen ari zara, matematika irakasterako garaian. Horrek esan nahi du hizkuntzaren aldetik erantzukizuna duzula. Eta ikasi egin behar duzula, jakin egin behar duzula, matematika irakasterako garaian zer-nolako hizkuntza darabilzun. Izan ere, matematikari zenbat eta hobeto doakion hizkera bat erabili, orduan eta hobeto irakatsiko duzu, eta ikasleek hobeto jasoko dute.

Gainerako guztiaren atzean hiz-

kuntza dagoela jakitea, uste dut horixe izango litzatekeela ardatz nagusietako bat. Berdin-berdin zait hemen izatea edo hizkuntza transmisioan bat ere arazorik ez daukan Salamancako eskola batean izatea. Gurean euskarak dituen arazoak, elebitasunaren arazoak..., horiek aintzat hartu gabe ere, iruditzen zait hizkuntzak izan behar lukeela ardatza. Eta gure kasuan, are gehiago.

Beraz, esango zenuke ahozkotasuna edo komunikatzeko gaitasuna erakutsi beharko liratekeela?

Hizkuntzaren bidez, lau gauza bakarrik egiten ditugu. Entzun, erantzun, irakurri eta idatzi. Lau horiek dira ardatzak, eta hemen ez da sartzen gramatika, esaterako. Edo ez da sartzen testuazterketa. Sartzen dira aipatutako lau elementu horiek. Eta lau horiek jardunaren bidez ikasten dira.

Izena eta izenondoa bereizten jakiteak gauza bakarra ziurtatzen du, izena eta izenondoa bereizten ditudala. Baina ez hizkuntza gehiago dakidala. Baina inoiz eskola batetik pasatu ez den eta hizkuntza izugarri ondo dakien mutil koskor baserritar bati, izena edo izenondoa den galdetuta..., ez du jakingo. Lau ardatz horiei dagokienez, jakina,

lehendabizi ahozkotasuna indartu beharko duzu, eta, ondoren, ahozkotasuna albo batera utzi gabe, irakurketa eta idazkuntza.

Inpresioa daukat, txikitatik hasita, material tradizionalari gero eta garrantzi gutxiago ematen zaiola. Baina, material tradizionalan, erritmoa dago, musikaltasuna, hizkuntzaren beraren oinarriak daude... Adibidetxo bat jarriko dut: "Putakume alaena!" Euskaltzaindiak dio "alaena" dela zuzena. Guk, baina, jan egiten dugu eta "alena" esaten dugu. Zergatik baina? Lauko horren ondoren (putakume), guk hiruko bat behar dugulako, lau-hiru sistema musikalak hala eskatzen digulako.

Hori dena, haurrentzako kantuetan, poematxoetan, saltoka ibiltzeko jolasetan..., horietan guztietan presente dago musikaltasuna. Euskara estilizatzeke moduak ere tradizioan daude. Eta horrekin guztiarekin batera, hizkuntzaren jenioa dago. Hortik dator nire konbentzimendua: tradizioa asko baliatuko bagenu ere, gutxi baliatuko genukeela.

Bada Azkuek jasotako testu bat: "Udaberriko lore polita non izan zara neguan? Abazuzien beldurratik sarturik zelai barruan". Ikasle batek ez dakielako zer den "abazuziak"? Baina nola

ikasle ditugu denok hitz berriak? Hori kantatzen ari denean zer axola zaio haur bati "abazuzia" zer den jakitea. Ulertzen du testuingurua. Eta hantxe geratu zaio abazuzia. Eta, halako batean, entzungo du berriro, eta hara, horixe zen, kazkabarra bizkaitarrentzat.

Baina, hori egiten ez badugu, erabat mugatzen dugu haren hizkera. Esaten da, "umearen mailan hitz egin". Baina nola, ordea, haurren mailan hitz egin? Normal hitz egin behar zaie. Guk ere ez ditugu ulertzen esaten zaizkigun guztiak. Eta testuinguruak testuak adina balio du, hizkuntza bat ikasteko prozesuan.

Gaur egun, ikasle guztiek erabiltzen dute ordenagailua. Guztiek erabiltzen dute Internet. Haurrak baliabide horien erabileran ere hezi behar dituzte eskolak?

Adibide bat jarriko dut. Dударik ez dago, euskararen zuzenketa, bereziki ortografiarako, baita formak zaintzeko eta horiek errespetatzeko ere, Xuxen aplikazioa baliabide ezin hobea da. Baina, baita ere, mugatu egiten du.

Hizkuntza guk jarriko dizkiogun mugak baino zabalagoa da, beti. Behin, iloba ikusi nuen idazlan bat egiten eta "honek eta hark konpontxo egin dute" idazten. Gure etxean asko erabiltzen dugun espresioa da, elkar hartu dutela edo esateko. Konpontxo egin, beraz. Orduan ikusten dut, Xuxenek konpontxo gorritz markatu dionez, ados jarri ziren idazten duela! Berak badaki, agian, Xuxenek zuzendu dion bezala irakasleak ere agian ezabatu egingo diola... Orduan, zuzendu egiten du eta ados idazten du. Zer esan nahi du horrek? Didaktika behar duela Xuxenek ere. Xuxenek gorritz markatutakoak maila honetako zuzenketa esan nahi du, baina ez du esan nahi guztia gaizki dagoenik.

Teknologia berri guztiek beren didaktika behar dute. Beren alde onak dituzte, baina, gauza guztiek bezala, erabilera txarra izan dezakete. Eta txarrari





E

“ Hizkuntzaren didaktika, berez, praktikoki ebaluatu ezina da. Baina ebaluatzen da, hain zuzen ere, hizkuntzaren irakaskuntzarako gutxien balio duen eta askotan eragozpena den gauza bat, alegia, gramatika. Sarritan eragozpena besterik ez den kontu bat da, eta horretan energia gastatzea... ”

ere erreparatu behar diogu, konpontxoren kasuan bezala. Ikasleak garbi jakin behar du Xuxenek, edo beste teknologia edo baliabide berriren batek, bere zerbitzura egon behar duela, eta ez alderantziz. Baina hori erakutsi egin behar zaio, eta inork esaten ez badio... Hori pasatzen da gaur egun gaztetxoek eskura dituzten baliabide guztiakin, Internetekin, sare sozialekin...

Hezkuntzaren egituraketak, antolatuta dagoen moduak, horrek ere arazoak sortzen ditu sarritan.

Egia esan, ez dut asko ezagutzen antolaketa nola dagoen. Egia da irakaskuntzako gaiek arduratzen nautela, eta beti iruditu zait Kafkaren gazteluan egongo bagina bezala dela, halako burokrazia batekin.

Nik uste dut, ez hezkuntzan soilik, ez eskolan bakarrik, uste dut gizarteko beste alor askotan ere gaitz bera dagoela. Gure hezkuntza sistemaren izurrite-rik handiena Espainiako sistemaren eredura jartzea da, haren bertuterik gabe eta haren akats guztiakin osatutakoa izatea.

Eta berriro ere hizkuntzara etorriko naiz. Salamancako irakasle batek gaztelera erakusteko erabiltzen duen didaktika berarekin eta baliabide berdinekin euskara irakasten ahalegintzea astakeria hutsa da. Lehendabizi, bi hizkuntzen sistema erabat ezberdina da, eta funtzionamendua ere ezberdina denez, didaktikak ere hortaz hausnartu egin behar du. Euskarak nola funtzionatzen duen galdetu behar du: bere izaera aglutinanteak, bere deklinabideak, bere silabak eta silabak eransten jarduteko joerak, ergatiboko

"K" hotsaren ahoskerak... Horiek guztiek duten eragina, gaztelaniarekin alderatuta, guztiz ezberdina da. Gainera, horri egoera soziala ere gehitu behar genioke. Ez gara guztiok euskaldunak, alderantziz baizik, eta horrek ere eragin sozial jakin bat dauka. Salamancako irakasleak ez dauka arazo hori, eta ez du horretaz arduratu beharrik. Hala eta guztiz ere, ez eskolarekin bakarrik, te-
lebistarekin ere, lehen esan dudan bezala, guztiarekin, gure eredia Espainiako kopia tze da. Eta, esan bezala, akatsak gehiago izaten dira onurak baino. Eta uste dut hortik kalte handia datorkigula.

Urrutira joan gabe, nik badakit frantsesak eta italierak zer garrantzi ematen dioten ahoz kotasunari. Eta baita ere, adin batetik aurrera, literatura idatziari. Ikasle horiek guztiek, hemengo arazorik gabe, irakurriak dituzte hainbat eta hainbat oinarriko testu, eta ezagutzen dituzte beren erreperorio herrikoiko kantua eta ipuinak eta... Sistema hori indarrean dute Frantziako Iraultzatik, eta sekulako indarra eta sekulako tradizioa du. Italian ere berdintsu gertatzen da. Baina, gero, beste kontu bat ere badago. Beraientzat, esatera noanak zentzugabekeria ematen badu ere, oinarri eta eskematikoki frantsesaren eta italiaren arazoa euskararena bera da: hizkuntza hegemonikoen gero eta itzal luzeagoa. Gaur frantsesaren defentsari buruzko liburuak irakurtzen badituzu, denak dira nik euskarari buruz hitz egiteko aplikatu ditzakedanak. Eutsi egin behar diogu honi, eta nola eutsi, eta etorkizunean zer... Eskema psikologikoa berdina da. Nolabait, bere burua hegemonia horren aurrean defendatu behar duenarena. Eta, noski, egoera horietan dauden hizkuntzen didaktikak, edo behintzat horrela barneratzen dutenenak interesatzen zaizkigu. Ez zaizkigu hizkuntza inperialisten didaktikak interesatzen, eta ez dut inperialista kutsu politiko hutsarekin esaten. Inperialista, edo hegemonikoa nahiago bada... Ezin dugu hizkuntza hegemoniko baten dinamika planteatu. Frantsesak eta italierak kezka horiek baldin baditu, guk?



argia Egutegia 2010

Salgai dagoeneko

Aurrean

- Jai egunak eta egun seinatuak
- Santuak eta euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

Atzealdean

- Hausnarketa labur ospetsuak. "Pentsamendu txikiak"

Egutegia: 8 €

Egurrezko taula: 55 € + egutegia opari

**Aurten mahai gaineko
euskarri berria
6 €**



ESKAERAK:

943 37 15 45 • denda@argia.com • www.argia.com/denda

argia
www.argia.com

Bilbotik Budapesteko Pikler Institutura

2009ko irailaren 7an, Bilboko Eskurtze Institutuko Haur Hezkuntza departamentuko sei irakaslek Budapesteko (Hungaria) Pikler Institutua izenez ezagutzen den umezurtz etxearen ataria gurutzatu genuen, gaztelaniaz egin den lehendabiziko ikastaroan parte hartzeko, ezinezkoa ematen zuena egia bihurtuz. Lerro hauen helburua esperientzia hori gure herrian zabaltzea da.

Eskurtze BHI, Bilboko Irala auzoan dagoen Bigarren Hezkuntzako ikastetxea da. Gure eskaintzen barruan, Lanbide Heziketako Haur Hezkuntzako Goi Mailako zikloa nabarmentzen da, eta, azken urteotan, buru-belarri gabil-tza haurtzaroari buruzko ezagueran, hau da, 0 urtetik 3ra bitarteko umeari buruzkoan, sakontzeko lanetan.

Hori dela eta, hainbat proiektu egin ditugu, eta egiten ari gara, hainbat herrialderekin (Finlandia, Suedia, Italia, Estonia, Alemania...) elkarlanean. Eta, noski, gure inguruko haur eskola pribatu zein publikoekin, ikastolekin eta beste zenbait pertsonarekin (Rosa Jové, Vicenç Arnaiz) eta kolektiborekin (*Adarra*, *Kiribil*...) ere egin dugu lan. Testuinguru horretan kokatu behar dugu gure esperientziaren hasiera.

Proiektu berriak bilatzeko asmoz eta Internetek eskaintzen digun informazioa aztertzen ari ginela egin genuen topo Emmi Pikler izenarekin. Ezaguna egin zitzaidan niri. Izan ere, Pikler eta Lóczy berbak psikomotrizitate-



LEIRE ABERASTURI

BILBOKO ESKURTZE INSTITUTUKO IRAKASLEA

ari buruzko hitzaldi batean entzun nintuen lehen aldiz. Kiribil elkarteko Montse Bilbaok, mugimendu libreaki buruz esaten ari zena hobeto azaltzeko, umezurtz etxe batean grabatutako irudiak erakutsi zizkigunean, hain zuzen ere.

Irudi haiek izugarritzko zirrara sortu zuten nigan, eta haur txikien arretari

buruz neukan ikuspegiaren 180 graduko aldaketa adierazi zuten. Irudiak Myrta Chokler argentinarraren *Moverse en libertad* dokumentaleko gaztelaniazko bertsioak ziren.

Myrtaren hitzei ez nien gehiegi erreparatu; umeen eta hezitzaileen jarrera izan baitzen zur eta lur utzi ninduen: harmonia, oreka, poza, lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza nabaritzen ziren. Bai hezitzailearengan, eta baita haurrengan ere.

Hitzaldia amaitu zen, urteak pasatu ziren, eta ikusitako irudiek bizirik jarraitzen zuten nire gogoan. Eta, halako batean, Emmi Piklerri buruzko artikulua aurkitu genuen *Infancia* aldizkarian. *Autonomía y cooperación en la vida cotidiana*, hain zuzen.

Artikulu horretan, nik ikusitakoa azaltzen eta kontzeptualizatzen zen, eta orduan erabaki nuen, erabaki genuen, hobeto esanda, bilatzen jarraitu



Kataluniako eta Euskal Herriko taldea Budapestean.

behar genuela, Eskurtze BHIko Haur Hezkuntza departamentu osoa ari baidara horretan.

Horrela, Lóczy Institutuarekin harremanetan jartzea lortu genuen. Institutu horretako Eszter Mozes pedagogoarekin harremanetan jarri, eta e-mail bidez elkarri idazten hasi ginen. Eszter Mozesek gaztelaniaz hitz egiten du. Hasieran informazio pixka bat eskatzen genion, baina, helburu komunak geneuzkela ikusirik, abenduaren erdialdean, Mozesek Budapesteko egoitza bisitatzera gonbidatu gintuen. Denbora galdu barik, hegazkin txartelak erosi, eta Hungariako hiribururantz abiatu nintzen, ikastetxeko prestakuntza arduradun gisa.

Ondorengo lerroetan Pikler pedagogiaren oinarriko zenbait printzipio eta bisitatu dugun institutuaren historia apur bat azalduko dizkizuet.

Emmi Pikler



Budapesten (Hungaria), Buda aldean, Lóczy izeneko kalearen 3. zenbakian dago Pikler Institutua. Haur jaioberrietatik hasi eta 3-4 urte bitarteko umeak hartzen ditu.

1946an, Hungariako gobernuak Emmi Pikler kontratatu zuen Budapesteko umezurtegi bat zuzentzeko. Pikler doktorea 1902. urtean jaiotako pediatria hungariar bat zen. Vienan (Austria) jaiotzen bazen ere, bere bizitzako urte gehienak Budapestean igaro zituen. Unibertsitateko ikasketak Austriako hiriburuan egin zituen, eta han,



Pirquet doktorearen klinikan lanean zebilela, bere praktika profesionalaren oinarriko printzipioak izango zirenak aurkitu zituen:

* **Motrizitate librea:** egoera sozial eta kultural ezberdinetako umeak aztertu ondoren, mugimendu askean hezitako umeek istripu larri gutxiago izaten zituztela konturatu zen. Are gehiago, ume horien mugimenduak askoz ere orekatuagoak, seguruagoak eta garatuagoak zirela.

* **Zainketa oneak:** motrizitate librean hazteko, ezinbestekoa zen umeari giro fisiko eta afektibo segurua eskaintzea. Puntu horretan, ezinbestekotzat ikusten ditu Piklerrek zainketa oneak.

Higiene eta elikadura uneetan, besteak beste, hezitzaileak harreman pribilegiatua eraiki behar du umearekin. Horretarako, ezinbestekoa da denbora nahikoa izatea umearen behar fisiko zein afektiboak asetzeko.

Une berezi horiek emango diote umeari segurtasuna, ondoren, libreki eta modu autonomoan mugitzeko. Hezitzaileak urregorizko denbora eskainiko dio, garrantzitsua dela erakutsiko dio, harengan, umearen gaitasunetan, konfiantza osoa duela erakutsiko dio.

* **Umea bere buruaz eta inguruaz ohar dadin ahalbidetzea:** helburu hori lortzeko, garrantzitsua da gertakarien erregularitasuna. Piklerrek zainketen koreografia bat garatu zuen, eta pedagogia horretan lan egiten duten hezitzaile guztiek era berean jokatzeko dute ume guztiekin. Noski, ume bakoitzak behar duena jasoko du.

Budapestera itzuli aurretik, Pikler

doktorea bereak bezalako ideia aurrakoiak zituen pedagogok batekin ezkondu zen, eta haur bat izan zuten. Izan zuten alaba Vienan aurkitutako printzipioetan heztearabaki zuten, eta emaitza onak ikusirik, beraien lanean aplikatzeari ekin zitoten.

Pikler judua zen, eta XX. mendeko 30eko hamarkadan Hungariako gobernuak juduekin zerabilkien politika zela eta, ezinezkoa zen harentzat klinika, ospitale eta beste zenbait erakundetan lan egitea. Horregatik, familia pediatria lanetan aritu zen urte askoan. Familia horiekin, alabarekin jarraitutako printzipioak probatu nahi izan zituen: umea gai izango da, bere kabuz uzten dugun heinean, bere garapen erritmoa errespetatzen dugun heinean, gehiago eta hobeto ikasteko—esertzen, zutik jartzeko, ibiltzeko, jolasteko, berba egiteko, hausnartzeko...—. Piklerrek lelo bat izan zuen beti: “Izan konfiantza umeak bere kabuz garatzeko duen ahalmenean”. Eta lelo horrekin hasi zuen bere ibilbidea Lóczyz.

Pixkanaka, Pikler oso pediatria famatua egin zen, eta gero eta familia gehiagorekin egiten zuen lan. Lehengo aipatu dugunez, 1946. urtean Hungariako gobernuak umezurtegi bat zabaltzea erabaki zuen—gerraren ondorioz edo tuberkulosiak jota hil zirelako gurasorik gabe gelditu ziren haurrentzat—, eta Emmi Piklerri eskaini zion zuzendari kargua.

Garai hartako gobernuak komunista zen, eta Pikler bera ere komunista eza zena. Eskaintza onartu zuen unean hasi zen Lóczy Institutuaren historia.

Institutuaren lehen urratsak

Ordura arte familiekin egindako lana erakunde batean abian jartzean, Piklerrek eta haren lankideek argi zeukaten amaren eta umearen arteko harremana ezin zela berregin erakunde batean. Hala ere, uste zuten posible zela umearen garapen fisiko eta psikologiko sana eta orekatua ahalbidetuko zuen giroa sortzea.

Piklerrek ordura arte familiekin praktikan jarritako printzipioak erakunde batean aplikatzea erabaki zuten; umezurtz etxean hezitako umeek etxetan hezitakoek bezalako bizi baldintzak izatea zuen helburu. Hau da, haurrak garapen egokia izateko behar-beharrezkoak ziren baldintza fisikoak zein afektiboak izatea.

Garrantzitsua zen familiaren funtzioak umezurtzegi barruan betetzea, eta, horregatik, ume bakoitzaren beharretatik abiatuta, ahalik eta zainzaile gutxien jarri zituen hauren inguruan. Horrela, umezurtz etxera heltzen zen unetik alde egiteko ordura arte, ahalik eta pertsona gutxien izango zituen hezitzaile lanetan.

Umekin zeuden hezitzaile guztiek koreografia edo erritual berari jarraitzen zioten. Horregatik, institutuan garrantzi izugarria zuen zainzaileen prestakuntzak. Piklerrek kaleratu egin zituen hasierako langileak, ez baitzuten haren lan egiteko modua onartzen. Neska gazteak kontratatu zituen, eta institutuan bertan prestatu. Gaur egun ere antzeko antolamendua izaten jarraitzen dute. Hezitzaileek pedagogo eta psikologo talde baten laguntza dute, eta behaketak, informazio truka-

ketak, datuen azterketak... izugarriko garrantzia dute eguneroko lanean.

Hainbat azterketaren emaitzak

1964. urtean Hungariako zientziaren akademiak umezurtz etxean zeuden umeak aztertu ostean, ondorioztatzen zuten Lóczy hezitako umeek ez zituztela ume instituzionalizatuek zituzten ezaugarriak (*René Spitz*).

1968. urtean, UNESCOk Lóczy hezitako ehun gazte aztertu zituen, eta psikologikoki eta afektiboki garapen eta jarrera normala zutela egiaztatu zuen. Ikerketa horren ondoren, Lóczy Institutua ezaguna egin zen mundu osoan.

Gauregun, nazioarteko 14 Pikler elkarte daude mundu osoan. Frantziarrak 25 urte bete ditu dagoeneko. Bartzelonan Pikler Heisterberg elkarte dago, eta Euskal Herrian oraintxe ari gara lehendabiziko urratsak ematen.

1970. urtean, zuzendari Judit Falk zela, Lóczy Institutua Hungariako Institutu Metodologiko bilakatu zen, eta hogeita zortzi urtean lan hori bete du, hau da, hungariar umezurtz etxe eta haur eskolen aholkularitza lana bete du.

Gaur egun, 0 urtetik 3ra bitarteko umeak hartzen dituzten Hungariako haurtzaindegiak Piklerren printzipioetan oinarritzen dira, eta nahiko ondo funtzionatzen dutela esan beharra dago.

1989. urtean institutu metodologikoa izateari utzi zion, eta Pikler Fundazioa sortu zen. Egun, Anna Tardos da fundazio zuzendaria. Pikler hil eta hiru urtera hartu zuen fundazio izena, eta, orduetik, Emmi Pikler Institutua ize-

nez ezagutzen da. Emmi Pikler Budapesten hil zen, 1984an.

Gure bisita

Irailaren 7tik 11ra Kataluniako eta Euskal Herriko 14 lagunek-horietatik 6 Bilboko Eskurtze ikastetxeoak-Lóczy Institutuan gaztelaniaz egin den lehendabiziko ikastaroan parte hartze-ko aukera izan dugu. Askoren ustez, hau izan da profesionalki izan duten esperientziarik onenetarikoa. Zerbait mugitu zaigu barruan, benetako altxor bat aurkitu dugula sentitzen dugu: taldeko lana, umearekiko begirunea, errespetua eta konfiantza bultzatzen dituen pedagogia bat topatu dugu. Pertsona bere osotasunean eraldatzen duen pedagogia. Bai umea eta bai berearekin lan egiten duen hezitzailea, biak eraldatzen ditu.

Hunkituta heldu gara, baina emozioak ez gaitu itsutzen. Lan handia dugu aurretik, bizitakoa hausnartu behar dugu, apurka-apurka jasotako mezuak gure barnean egituratzen joan. Baina bidea aurkitu dugulakoan gaude, edo, gutxienez, bide hori markatzen duen iparorratza.

Datorren irailean berriro itzuliko gara, baina ordura arte Eskurtze BHIko langileok gure prestakuntza proiektuekin jarraitzeko asmoa dugu, eta, horien barruan, Pikler Pedagogiak izugarriko garrantzia izango du; gai horretan espezialistak direnekin ikasteko aukera izango dugu, gainera.

Guztiok zaudete gonbidatuta, noski. Lan hau guztion artean egin behar baitugu, ez dago beste erarik.



Etorkinen seme-alabak eskolan: zer aldatzen ari da?



Orain irakasle eskoletan dauden estudianteeek, ikasketak bukatuta eskoletara itzultzen direnean irakasle moduan jada, berehala sumatuko dute eskola ez dela ezagutu zuten berbera, zenbait aldaketa garrantzitsu gertatu direla urte gutxian. Horietako bat etorkinen seme-alaben eskolatzea da.

Euskal gizartera milaka pertsona etorri dira azkeneko urteotan. Eta hezkuntza sistemara milaka ikasle berri, Espainia kanpotik iritsitakoak. Ume horien eskolatzea ez da oharkabe pasa hezkuntza sisteman, jakina. Ez dira euskal ikastetxeetan eskolatzaren lehenengo etorkinak, espainiar estatutik etorritakoak kontuan hartzen badiugu. Badirudi, baina, estatuz kanpotik heldutako immigrazio berri horrek ondorio desberdinak izan dituela, aurrekoarekin konparatuta.

Azken urteotan klaustro ugari galdetu ahal izan diet haien ustez zer aldatu den hezkuntza sisteman azkeneko urteotan estatuz kanpoko immigrazioaren ondorioz, alegia, zer eragin daukan ikasle etorkinen seme-alaben eskolatzeari ikastetxe batean.

Kultura eta hizkuntza

Datozen ikasleen artean nekez aurkituko dugu EAEko hizkuntza ofiziale-



Amelia Barquin

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO (HUHEZI) IRAKASLEA

tako bat –euskara, hain zuzen– dakienik. **Berria da, baina, hezkuntza sisteman gaztelania ere ez dakiten ikasle-akegotea.** Ikasle horiekin irakasleek ez daukate “bitarteko hizkuntzarik”. Horrek ondorioak dauzka. Halaber, hainbat guraso ere ez dira ondo konponetzen gaztelaniaz, eta, oro har, gurasoen parte hartzea eskolan oso mugatua izan daiteke.

Bestalde, hizkuntzari dagokionez, **autoktonoen eta etorkinen “aukeraketak” desberdinak dira ereduari dagokienez.** 2007-2008 ikasturtean, etorkinen seme-alaben artean %45,4 ere-

duan zegoen eskolatuta, %27,8 B eredu eta %26,8 D eredu. Kopuru osoarekin konparatu ahal dugu: 2007-2008 ikasturtean matrikulatutako %20,7 A eredu zeuden, %23,2 B eredu eta %56,1 D eredu. Hiru urteko ikasleetatik, %68,8 hasi zen D eredu eta %6,5 A eredu.

Datu horiek zuhurtasunez irakurri behar dira, sinplekerietan ez erortzeko. Ezin dugu orain luze azaldu zein arazoik eramaten dituen familia horiek bertako populazioa baztertzeko ari den aukeraketak egitera; esango dugu soilik euskararen normalizazio prozesua ez dela oraindik erabat burutu, eta nekez sentituko dutela etorkinek euskara ikasteko beharra. Oso ondo dakigu, bestalde, EAEko autoktono gehienek ere ez dakitela euskara eta ez direla ikasten ari: gaztelaniaz dakiten etorkinek euskal herritar gehienek beste dakite, alegia, euskaraz ez dakiten guztiek beste.

Era berean, **kulturak dibertsifikatu egin dira gelan.** Jakin badakigu ikasleak inoiz ez direla izan erabat homogeneoak kulturalki. Aniztasun hori, baina, nabarmen areagotu da, eta, bada garrantzitsuagoa den gauza bat: orain hainbat ikasleren jatorrizko gizarteak eta kultura erreferentziak ezezaguna-

goak dira irakasleontzat.

Beste sistema batean eskolatu diren ikasleentzat, **eskolako eta gelako arauak eta ohiturak desberdinak izan daitezke**: autoritatearekin harremana, emakume eta gizonen arteko harremana, denboraren kontzepzioa, gatazkak bideratzeko moduak, hitzaren erabilera, materialen erabilera egokia, jabetza-zen kudeaketa... Esan bezala, hezkuntza erakundea ez da batzuetan jabetzen arau eta ohitura horiek izan badirela eta, batez ere, adin batetik aurrera, jakintzat ematen du ume guztiek badakitelera haiekiko egoki jokatzen.

Gurasoen eskola ohiturak ere desberdinak izan daitezke: batzuek zailtasunak izango dituzte etxeko lanetan umei laguntza emateko; memento jakin batzuetan irakaslearekin biltzeko eta hitz egiteko ohitura ez dago kultura guztietan hedatuta, eskolak umearekin arazo larri bat ez badauka behintzat. Bestalde, eskolan parte hartzeak esan nahi du trebetasun batzuk eduki behar direla: jendaurrean hitza erabiltzea, dokumentu formalen irakurketa kritikoa, ordutegiz kanpoko jarduerak kudeatzea... Parte hartzea ez da dirudien bezain erraza pertsona askorentzat, batez ere, hori guztia egiteko hizkuntza ez badute ondo menperatzen. Horri gehitu behar zaio, noski, guraso askok daukaten denbora eza.

Halaber, eskola beti esparru gatazkatsua izan bada ere, **gatazka berriak sortzen ari dira** ikastetxeetan: zer bait egin behar al du eskolak neska musulman bat zapia ekartzen hasten denean? Eta jantokian kontuan hartu behar al dira kultura batzuen elikadura-debeku erlijiosoak? Eta generoei egotzitako rolei dagozkien jokaera batzuk?

Eskolatze egoerak

Ume gehiago heltzen dira ikasturtea hasita dagoela. Familiek urte osoan migratzen dute, eta ez oporretan edo irailean soilik, baita ikasturtea hasita dagoenean ere. Baliteke, beraz, ikasle berriak azaroan, otsailean edo apirilean hastea eskolan. Ikasle berantiarren kopurua ere igo da; zortzi urte baino gehiagoko umeen eskolatzea. Gerta

daiteke, bada, martxoan ikasle berri bat eskolatzea, hamahiru urterekin, gaztelaniaz eta euskaraz jakin gabe.

Kontuan hartu behar da **ume batzuk ez direla inoiz eskolatu, edo modu prekarioan eskolatu direla** edo, maizago, haien eskolatzea bestelakoa izan dela. Alde batetik, beste herrialde batzuetan umeak hemen baino beranduago hasten dira eskolan. Lehen eskola ohiturak eta eskola kultura aipatu ditugu, baina kontuan izan behar da, halaber, **sistema desberdinetan lantzen den curriculum**a: ume horiek zer ikasi duten matematikan, ingurunean, musikan eta plastikian, geografian... eta bertako curriculumaren arabera zer ikasi beharko duten.

Horri gehitu behar zaio **etorkinen seme-alaben mugikortasuna** handiago dela, oro har, autoktonoen seme-alabena baino. Gehiago dira, haien artean, ikasturtea bukatu gabe eskola uzten dutenak, beste batean matrikulatzeko. Esan dezakegu "pobreen mugikortasuna" dela: gurasoek etxe merkeago bat eta lan baldintza hobekak beste nonbait aurkitu bezain laster, familia osoa mugitu egingo da. Bestalde, ikasle horrekin afektuzko harremana eta inplikazioa izan duten irakasleek eta ikaskideek ere galera sufrituko dute.

Egoera horiek ondorio garrantzitsuak daukate **ikastetxearen antolakuntzari dagokionez**: ikastetxea presatu behar da etorri berriei harrera eta jarraipen egokia egiteko, berdindio zein mementotan, zein adinarekin eta zein eskolatze motarekin etortzen diren. Izan ere, klaustroek gero eta argiago ikusten dute egoera horiek alde aurretik planifikatzea askoz hobea dela inprobisatzea baino.

Azpimarratu behar da, bestalde, **ezaugarri horiek taldeak heterogeneoak egiten dituztela** hainbat alderditan. Eskolako hizkuntzaren ezagueran izan dezaketen ondorioa nabarmena da: D ereduko gela batean eskola hizkuntza ondo dakiten ikasle batzuk egongo dira; beste batzuk duela zenbait urte eskolatu dira eta aurrerakuntza handiak egin dituzte; bi ikasle pasa

den ikasturtean sartu ziren gelan eta pixkanaka ikasten ari dira. Gela berean ikasturte hasieran iritsitako ikasle bat dago eta, azkenik, pasa den astean heldutako beste bat, oraindik ia ezer ere ulertzen ez duena. Talde horretako irakasleak aniztasun hori egoki kudeatu beharko du, ikasle bakoitzak ikasten jarraitzeko daukan mailatik abiatuta; horixe izango da bere erronka nagusietako bat.

Ikasleen egoerak

Dakigunez, **zenbait familiaren egoera ekonomikoa eta soziala bazterketaren muga**n dago. Argi dago familiaren ibilbideak, baldintza ekonomikoek, bizi baldintzek, lan baldintzek... eragin handia daukatela umearen egunerokotasunean eta ongizatean eta, beraz, baita eskolan egoteko moduan eta ikasteko gaitasunean ere.

Ikasle horien familien egoera juridikoa eskasagoa da ikasle autoktonoen egoerarekin alderatzen badugu. Izan ere, ez dituzte bertakoen eskubideak, haiek lan eskubideak babesteko aukera gutxiago daukate eta, gainera, harrera-gizarteko segurtasun indarren susmopean daude.

Autoktonoen jarrerak etorkinekiko, bestalde, ez dira beti positiboak. Hainbat mesfidantza, beldur eta kezka zabaldu dira etorkinen inguruan, eta baita haien umeen eskolatzearen inguruan ere: ez direla beti behar bezala integratzen, euskararekiko eta euskal kulturarekiko haien jarrera ez dela beti irekia, eta, batez ere, hezkuntza kalitate jaitsi egiten dela gela batean daudenean... Adierazpen horiek entzun daitezke guraso autoktonoen ahotan, baina baita zenbait irakasleren ahotan ere. Galdera batzuk etortzen zaizkigu burura ideia horien aurrean: nola ulertzen dugu "integrazioa"?, zer da hezkuntza kalitatea?, egia da euskararekiko haien jarrera ez dela egokia?, zeren arabera esan daiteke hori? Aurreiritzi horiek hedatuta daude gizartean eta eskolan, eta eragina daukate umeen eta haien familien harreraren eta hezkuntza komunitatearekiko harremanean.

Adela Cortinak oso egoki azaldu

duenez, **xenofobia baino**, “**aporofobia**” da **zabalduen dagoen jarrera**, alegia, pobre edo ahulekiko fobia. Pertsona batzuekin ez dugu harremanik nahi, ez atzerritarak direlako, baizik eta po-break direlako. Hainbat gurasok argi daukate haien seme-alabentzat beren gizarte mailan edo gorago dauden lagunak nahi dituztela, inoiz ez behe-ragokoak.

Ondorioz, **eskola batzuetan “kontzentrazioak” gertatzen ari dira**. Eskola batean ume etorkinen kopurua handiago egin ahala, guraso autoktono batzuk hasten dira seme-alabak eskola horretatik ateratzen. Horren ondorioz, leku gehiago geratzen dira libre, eta urtean zehar ailegatuko diren etorkinak eskolatzeko erabiliko dira. Hori guztia oso bizkor gerta daiteke; zenbait ikastetxe bost urtean pasatu dira ikasleria erabat autoktonoa izatetik ikasle gehienak etorkinen seme-alabak izatera. Ikastetxe horietan ez da islatzen auzoko edo herriko gizarte osaera; horregatik “ghettoak” deitzen zaie.

Etorkinen seme-alabak “**atzerritarak**” dira **hainbat autoktonorentzat**: nahiz eta hemen bizi, hemengo eskolara joan, hemengo hezkuntza sisteman ikasi, hemengo kulturaren hezi... , autoktono batzuentzat ume horiek kanpotarrak dira eta izango dira beti. Gehienak, bestalde, Hirugarren Mundutik datoz, harrera gizararen ikuspuntutik, mundu txiro eta prestigiorik gabeko batetik, hain zuzen.

Gerta daiteke **etorri berriek dolu fasea jasaten egotea** atzean utzitako guztiagatik eta gure artean bizi dituzten baldintza zailengatik. Badago termino bat, “akulturazio estresa”, eta erabiltzen da beste herri batera doan pertsonaren sufrimendua adierazteko. Alegia, etorkinek oinarritzko arazoak dituzte eta oinarritzko arazo horiekin daude arduratuta: lana, etxebizitza, paperak, familiarren egoera, umeen eskola... Ezagutzen zuten mundua utzi dute: familia, lagunak, bizimodua, paisaia, hizkuntza... eta ezagutzen ez duten mundu batean murgildu dira. Ez dituzte mundu horretako klabeak ezagutzen, eta ez dakite

etsi ahal izango dioten. Horrek ondo ez emozional handia sortzen du bai nagusiengan bai umeengan.

Zenbait ondorio

Nahiz eta agerikoa izan, nabardura bat egin beharra dago: ume etorri berri guztiek ez dituzte partekatzen goian aipatutako ezaugarri guztiak edo ez dituzte partekatzen gradu berean; ez da egokia pentsatzea heldu berri bakoitzaren atzean ezaugarri multzo hori dagoenik bere osotasunean. Egia da, baina, umeon artean ezaugarri horien maiztasuna handiago dela.

Analisi honetan ez ditut “zaila” eta “zailtasuna” hitzak saihestu nahi izan, nahiz eta batzuei desagokiak iruditu zuzentasun politikoaren izenean, hitz horiek erabili baitituzte hainbat irakasle egoera berriaren inguruan daukaten pertzepzioa azaltzeko. Horri bizkarra ematea ez litzateke egokia, gure ustez.

Izan ere, zerrendatutako elementuen multzo horri begiratzen diogunean, berehala konturatzen gara ikasle berriak zailtasun eta ahalegin iturri esanguratsua direla irakasleentzat, eta ez bakarrik iritsi berritan, baizik denbora luzean. Zerrenda horrek azaltzen du, hain zuzen, etorkinen seme-alabak nahi eta bilatzen ez diren ikasleak direla eskola askotan, gehienetan ez esateagatik.

Eta sinpleegia izango litzateke jarra hori xenofobiari egozte, besterik gabe. Egia da irakasleen artean ere, beste hainbat herritarren artean bezala, sentimendu xenofoboak egon daitezkeela, baina hori ez da nahikoa etorkinen seme-alabak eskoletan hartzeko “gogo falta” azaltzeko. Ikusi dugun bezala, ikasturtean zehar edozein momentotan eskolatzen dira ikasle horiek, adin guztietan, eskolako hizkuntza bat edo biak jakin gabe, eta agian ezagutza maila desberdina dute dagokien mailarekin alderatuta; batzuk dolu fasea jasaten ari dira utzitako guztiagatik eta gure artean bizi dituzten baldintza zailengatik; haien gurasoek eta eskolak zailtasunak dauzkate elkar ulertzeko; hemengo eskola ohiturak ezezagunak

Berria da hezkuntza sisteman gaztelania ere ez dakiten irakasleek egotea. Irakasleek horiekin ez dute “bitarteko hizkuntzarik”.



zaizkie oraindik... Alderdi horiei guztiei egoki erantzuteak ahalegin handia eta ordu asko eskatzen ditu ikastetxean, eta irakasle askok sentitzen dute horretarako baliabideak falta zaizkiela, eta baita prestakuntza ere.

Dudarik gabe, kezka horiek oinarria dute eta administrazioak behar bezala erantzun beharko lieke, alegia, behar diren baliabideak eta prestakuntza eskainiz.

Beste ikuspegi bat: ikasleena

Baina gure hausnarketa honetan ikuspegi nagusia falta zaigu, hain zuzen, eskola inklusibotik datorrena. Dakigunez, eskola inklusiboaren helburua ez da ume guztiak “ume estandarren” trokelera eramatea; ume bakoitzak bere ezaugarriak dituela kontuan hartzen du. Aldi berean, eskolak ezagutzen ditu, estimulatzen ditu eta erabiltzen ditu, ume bakoitzak bere dohaiak eta gaitasunak ahalik eta hobekien gara ditzan. Eskola horrek komunitatearen zentzua sustatzen du, parte izatearen eta onartua izatearen zentzua. Argi dago eskola inklusiboa utopia bat dela, baina baita ere hainbat ikastetxe eta hainbat irakasle urrats sendoak ematen ari direla utopiarako bidean.

Goian zerrendatutako alderdiak, beraz, beste modu batean ikusi ahal ditugu: **horiexek dira hemengo hezkuntza sisteman ikasle berriek aurkitu ahal dituzten oztopoak**. Horren ondorioz, hezkuntza sistemak moduak bilatu beharko ditu oztopo horiei aurre egiteko eta konponbideak aurkitzeko.

Izan ere, gero eta gehiago dira premia horretaz jabetzen ari diren irakasleak eta ikastetxeak. Hainbat irakasle



Autoktonoon jarrerak etorkinekiko ez dira beti positiboak. Hainbat mesfidantza, beldur eta kezka zabaldu dira etorkinen inguruan, eta baita haien umeen eskolatzeari inguruan ere.

konturatzen dira profil berriko ikasleen aurrean egokitzea beharrezkoa dela, eguneratzea eta neurri berriekin erantzutea; eta konturatzen dira, halaber, hezkuntza sistemaren eta horko profesionalen ardura behar berrien aurrean egoki jokatzeko dela. Azken finean, nork esan du irakaslearen lana erraza denik? Zailtasunei uko egitea ez dago irakasle onen jokoaren artean. Ez al da hori, hain zuzen, zailtasunen aurrean bideak bilatzea, irakasle onaren eginkizuna?

Aukerak eta erronkak

Orain arte gure analisian zailtasunak eta oztopoak hitz gakoak izan dira, baina etorkinen eskolatzeari hainbat alderdi positibo ere badaude. Eta horiek aurkitzea irakasleok egin behar dugun prozedurazko ariketa da, behar-beharrezkoa.

Jardunean dauden hainbat irakasleri galdetu diet zeintzuk diren etorkinak haien ikastetxeetan eskolatzeari ikusten dituzten abantailak. Hemen bildu ditut han-hemenka aipatu dituztenak:

Aniztasuna aberastasuna da: “Desberdintasunetik ikaskuntzarako aukera bikainak eskaintzen dituzte”. Desberdintasun kulturalaz eta sozialaz gauza bera esan daiteke. Baina, noski, hori ez da berez gertatzen. Hori egia izateko, aniztasunarekin egiten den kudeaketak egokia izan behar du, alegia, irakasleak aniztasuna altxor bat dela sinestu behar du, ikasleei horrela transmititu behar die eta aniztasun hori eskolatan

esplizituki erabili behar du. Bestela ez.

Ikasle etorri berriak **ezin ditugu baliotsi “defizit teoriaren” arabera**, ezin ditugu ikusi “ezer gutxi dakiten” ikasle moduan. Ikasle horiek iragana daukate, hainbat ezaguera dauzkate, eta ezaguera horiek estimatu behar dira eta eskolan erabiltzeko aukerak bilatu. Ikasle guztiek badaukate zerikasirik beste guztiengandik. Irakasleek ere bai.

Etorkinen eskolatzeko aldaketak eskatzen ditu: antolaketan, estrategietan, metodologian, hausnarketan...

Berrikuntza bultzatuko du eta aniztasuna egoki tratatzera eramango gaitu. Kalitatezko hezkuntza lortzeko beste urrats bat izan daiteke. Lehen esaten genuen bezala, aniztasunaren aurrean metodologia guztiek ez daukate eraginkortasun berbera; metodologia tradizionalaren eskasia are nabarmenagoa da gelan aniztasuna handia denean. Ikasle berriei esker, hainbat irakasle zalantzan jartzen ari dira beren irakasteko moduak, eta bide eta prozedura berriak eta berriztatzaileak bilatzen ari dira, aniztasunari hobeto erantzuteko. Baina aldaketa horiek ez dira egokiak izango soilik ikasle berrientzat, baizik eta guztientzat, bereziki gela horietan eta metodologia tradizionalarekin jada eskola porrota jasaten ari ziren ikasleentzat.

Immigrazioak agerian uzten ditu oraindik gizartearen eta eskolan daukagun erronkak:

- Aniztasunaren trataeran. Askotariko aniztasunaren trataeran oraindik egin behar dugun ahalegina gogorazten digu.

- Euskararen normalizazioan. Etorri berrien eskolatzeari sortzen zaizkigun zalantzek eta kontraesanek euskararen egoera oraindik ez normalizatua nabarmentzen dute, eta oraindik egiteko dagoena gogorazten digute.

- Gizartearen kohesiorako balioetan eta gatazken trataeran. Etorri berriei gatazkatsuak direla leporatzen zaie, baina ez da ahaztu behar autoktonoak ere gizarte gatazkatsu batean bizi garelako eta gatazken kudeaketari buruz asko ikasi behar dugula.

- Talde batzuen bazterketan. Estatuz barneko aniztasun kulturalaren kudeaketa ez da orain arte erabat arrakastatsua izan, eta hor ere asko ikasi behar dugu. Ijitoekin garatzen den hezkuntza da horren adibide esanguratsua.

- Kulturen errespetuan. Estatuz kanpotik etorritakoek gogorazten ditugute estatu barrutik ere etorri direla hainbat ikasle (Galiziatik, Extremaduratik...). Birplanteatu arazten digu orain arte kultur aniztasun horri ere zer arreta eman diogun.

Hainbat balio lantzeko aukera ere ematen du: ikasle bakoitzak besteak errespetatzea eta estimatzea, laguntza eskatzea / eskaintzea / ematea / jasotzea, elkartrukatzea, entzuten ikastea, anbiguotasuna toleratzea, gatazkak bideratzea...

Aukera ematen die ikasle guztiei kompetentziak garatzeko, askotariko mundu batean modu osasuntsuan bizi ahal izateko.

Behar-beharrezkoak dira kompetentzia horiek: aintzat hartzea kultura desberdinen planteamenduak, balioak, mundu-ikuskerak eta harremanak izateko modua; errespetua / estimua beste kulturekiko eta beste kulturetako pertsonakiko; komunikazio gaitasunak, gatazkak bideratzeko gaitasunak... Ezaguera horiek ez dira matematikan edo ingurunean ikasten direnak baino garrantzi gutxiagokoak: hein handi batean kompetentzia horien ezagotzea gure munduan, egunero, gertatzen eta gatazketan gertatzen diren hilketek hala baieztatzen dute.

Eskolan izandako esperientziak xumeak bezain boteretsuak dira zentzu horretan: beste jatorri bateko lagun bat izatea txertorik onena da xenofobiarekin eta sinplekeriarekin kontra; jatorri marokoarrek lagun bat daukan autoktonoak nekez adieraziko dituzte orokorkeriak eta irainak marokoarren edo etorkinen kontra, eta alderantziz.

Ikasle etorri berrien eskolatzeko planteatzen digu, azken finean, zer gizarte mota izan nahi dugun etorkizunean eta zer egiteko prest gauden hori lortzeko. Irakasleek lana eta inplikazioa ezinbestekoa da bide horretan.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

abendua
berriak

Eskararen erabilera areagotzeko



Azaroaren 6an Donostiako Miramar Jauregian Euskararen Kontseiluak antolatutako Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta jardunaldiak egin ziren.

Hasierako hitzak Kontseiluko **Xabier Mendiguren** idazkariak aurkeztu zituen, esanez: “Euskararen normalizazio osoa lortzerako orduan, berebiziko garrantzia du eskolak edo hezkuntza-sistemak ikasle euskaldunak sortzea. Ikastetxeek eta hezkuntza munduak berebiziko ekarpena egin diote euskararen normalizazio-prozesuari, ikasle asko euskarara gerturatu eta euskaldunduz.

Urteak daramatza Kontseiluak hezkuntza-arloko proposamenak kalera-zen. 2006an, ele biko irakastereduen inguruan honako azterketa burutu zuen: juridiko-legala, soziolinguistikoa, psikolinguistikoa eta glotodidaktikoa eta operatiboa. Azterketaren emaitza izan zen *Ikasle guztiak euskalduntzeko Kontseiluak egiten duen proposamena*, 2006ko azaroan aurkeztutakoa.

Bestalde, 2008ko abenduan osatutako *Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen* proposamena, Hezkuntza arloko bazkide guztien babesa izan zuena. Hauxe izan zen EAEko Hezkuntza Sai-

lak 2007an osatutako “Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn” legearen garapenerako Kontseiluaren proposamena. Honakoak ziren proposamenaren eduki garrantzitsuenak:

-Etapeta eta ziklo bakoitzean hizkuntzen arteko denbora-banaketa.

-Ikastetxe guztiek izan behar duten hizkuntza-proiektua aberastea.

-B2 helburua egoki neurtzea.

Bere helburu nagusia, derrigorrezko irakaskuntzak ikasle euskaldun eleanitzak sortzea, hau da, 16 urtekin euskaraz B2 maila, gaztelaniaz Hegoaldean edo frantsesez Iparraldean lortzen den maila, egiaztatzea, eta, atzerriko hizkuntza batean, behintzat, B1.

Nabarmena da, euskararen normalizazioa eta belaunaldi berrien euskalduntzeari begira, ikastetxe barruan eta eskola-denboran burututako lana ez dela nahikoa. Horren haritik, ikastetxe-etatik abiatuta, euskararen normalizazioa helburu duen hainbat egitasmo lantzen ari da hainbat esparrutan: ikasgela, eskola, herria, udalerria eta udalez gaindiko administrazioa... beti ere, eskola-denboran egiten den lanaren osagarri. Honen garrantzia ikusita, iaz aurkeztutako lanari jarraipena eman nahi izan dio Kontseiluak eta aurretik abiatutako esperientzia hauek bildu eta sistematizatu ditu txosten batean. Honen



emaitza, esku artean dugun *Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta* liburua izan da. Edizioa hiru hizkuntzatan dago, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.”

Jarraian, liburuaren laburpena egin zuen **Arantxa Urbek**, esanez: “Kontseiluaren iritziz, euskarak izan behar du eskola-hizkuntza. Horrela zehaztu genuen iaz aurkeztutako *Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen* proposamenean. Alde batetik, oinarri zientifikoe-tan arreta jarri dugu: adituek eta ikerketek erakutsitako ondorioak direlako. Eta bestetik, esperientziak erakutsita-koari so egin diogu: 30 urteko eredu- aplikazioak eman dituen emaitzak kontuan izan ditugulako.

Apustu garbia egiten dugu biharko belaunaldiak euskalduntzea ahalbidetuko duten murgiltze- eta mantentze-ereduen alde. Errealitate desberdinak berdintasunez landuta, eta momentu honetan euskara eta gaztelania edo frantsesa ez daude berdintasunean, ez dugu hasierako desberdintasuna ezabatzea lortuko, eta horixe da gure helburua. Beste jite bateko politika eta ekimenak beharko dira honetarako, ikasle euskaldun eleanitzak sortzea ahalbidetuko dutenak.

Hori guztia kontuan, ikasgela, es-

estrategiak eskolatik abiatuta



kola, herria, udalerría eta udalez gaindiko administrazioak, diskurtsoa... eta bakoitzean zer egin euskararen erabilera sustatzeko proposatu zuen”.

Ikastolen Hizkuntz Proiektua. Planteamendu teoriko-praktikoa aurkezten **Irene Urbina** eta **Kristina Boan** aritu ziren.

Familia eta eskola norabide berean joatearen beharra azimarratu zuen **Iñaki Eizmendik**.



Kiroletako prestatzaileek nola jokatu beharko luketen euskararen erabilera sustatzeko, beraien esperientzietatik ikusita aritu zen **Naia Inza**.

Aisialdia zer den eta haren garrantzia programa desberdinak garatzeko orduan azpimarratu zuen **Jaime Altunak**.

Julen Etxeberria, **Koldo Tellitu** eta **Mikel Ormazabal** euskararen erabilera sustatzeko gakoek buruz aritu ziren,



beraiek ikusten dituzten aukerak eta zailtasunak azaldu zituzten.

Euskararen erabileran tresna informatikoez (Blogak, Wikiak...) duten baliagarritasuna eta garrantzia azpimarratu zuen **Maite Goñik**.

Amaitzeko, Kataluniako Generalitateko etorritako **Josep Vallcorba** aritu zen. Kataluniako eskola hizkuntza zergatik den katalanera eta horrek jendarrean duen kohesio ahalmena azalduz.

Katalanera eskola hizkuntza maila guztietan

Josep Vallcorba Kataluniako Generalitateko “Llenguas i Entorn”eko zuzendariorde orokorra aritu zen Euskararen Kontseiluak antolatutako jardunaldietan. Bere esanetan, katalanera da eskola hizkuntza ikastetxe guztietan. Hori, adostasun handiz lortu da, bai jendarrean eta bai alderdi politikoen artean, Kataluniarako kohesionatzaile delakoan.

1998ko Hizkuntza Politikako legeak hala zioen: Katalanera hizkuntza Kataluniako nazioaren nortasuna garatzeko funtsezko bitartekoa da, komunikaziorako oinarritzko tresna, integrazioarako eta herritarren kohesiorako, edonon jaio direlarik.

Josepen esanetan, hizkuntzen ezagutza eskubideen berdintasunerako, kalitaterako eta ekitaterako bermea da.

Etorkein ugari dituen herria da Katalunia. Azken bi hamarkadetan estatu kanpotik joandakoak, gainera. Egoera ezaguna ez denak sortzen duen “beldurra” dela eta, beldur hori arazoan bihurtu behar dela eta “arazoa” soluziobidean bilakatu behar dela esan zuen. Horrela, *bezkontza arrakasta* arlo guztietan (ikastekoan, pertsona gisa, lan munduan eta arlo sozialean) bilatzean datza erronka.



Hezitza sexu-biolentzia erausteko asmoz

Adarra pedagogia erakundeak emakumeen aurkako biolentzia aztertzeko jardunaldiak antolatu ditu. Datoren abenduaren 15ean eta 16an Bilboko Bolunta aretoan (Zabalbide 1, Alde Zaharra).

Jardunaldi horiek hiru helburu nagusirekin antolatu ditu:

- Genero indarkeriari buruzko ikerketa zehatzak deskribatu eta zenbait ondorio aztertzea.

- Emakumeen kontrako indarkeria gainditzeko zailtasunak identifikatu eta ibilbideak asmatzea.

- Esperientziak eta baliabideak elkartrukatzea.

Hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan edo erakundeetan parte hartzen duten pertsona guztiei zuzenduta daude jardunaldiak. Hots, eskola eta gizartea hobetu nahi duten guztiei –irakasle, ikasle, guraso, elkarte...– dago zabalik.

Izen ematea doakoa izango da, eta jardunaldien lehenengo egunean egin beharko da Boluntan bertan. Lekua mugatua izango da.

EGITARUA

ABENDUAK 15, ASTEARTEA

17:00etan: Izena ematea eta dokumentazio banaketa.

17:15ean: Jardunaldien aurkezpena.

17:30ean: Hitzaldia eta eztabaida: Genero biolentzia prebenitzea eredu komunitariotik. *Lidia Puigvert Mallart* (CREA, Bartzelonako Unibertsitatea)

ABENDUAK 16, ASTEAZKENA


17:15ean: Genero biolentzia Bilboko nerabe eta gazteen bikote harremanetan. (Bilboko Udala) *Elisa Usategui* (EHU-UPV)

18:30ean: Taillerra: Maitasun erromantikoa eta tratu txarrak. *Ianire Estébanez* (Deusto-San Inazio modulua, Emakume Zerbitzuaren laguntzailea).

IX. Psikomotritate jardunaldiak

Azaroaren 13, 14 eta 15ean Gasteizko Europa jauregian izan ziren jardunaldietan jende ugari hartu zuen parte.

Aurten honakoak izan dira gonbidatuak: Bernard Aucouturier (Psikomotritate Praktika-ren sortzailea), Sonia Compostella (Asefop-eko psikomotritzista eta formatzailea), Luis Casanovas (medikua, diafreista), M^a Jose Intxausti (psikologoa, psikomotritzista, Bergarako eskolako irakaslea) eta Pello Añorga (idazlea, ipuin kontalaria, Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKO irakaslea).



Aniztasun Afektibo-Sexuala



Gehitu Euskal Herriko Gay, Lesbiana eta Transexualen elkarteak Aniztasun Afektibo-sexuala haur eta lehen hezkuntzan izeneko jardunaldia antolatu zuen azaroaren 7an, Donostiako Berritzegunean.

Besteak beste, ondorengo gaiak jorratu ziren: nola landu sexu

aniztasuna heziketan, osa daitezkeen unitate didaktikoan adibideak, haur eta lehen hezkuntzarako material bereziak...

Hizlariak Mercedes Sanchez Sainz eta Melani Penna Tosso izan ziren.

Nik ere baditut eskubideak




Vianako (Nafarroa) Erentzun ikastolako 6.mailako ikasleek saria lortu dute Nafarroako Abokatuen Elkarteak antolatzen duen *Yotambientengode-rechos* lehiaketan. Erentzun Ikastolako ikasleek haurren eskubideen inguruko laburmetraia aurkeztu zuten lehiaketara eta 1.000 euroko saria eskuratu zuten. Dirua gelarako eta Ikastolarako materiala erosteko baliatuko dute. Ba omen zuten "bihozkada bat", baina ez omen zuten saririk espero. Joan den urriaren 30ean joan ziren sari banaketara 6.mailako ikasleak, gurasoak eta Fultxo Crespo irakaslea. Oso gustura itzuli ziren guztiak Vianara, jasotako sariarekin.

"Haurrek eskubideak haurrei azalduta" izeneko laburmetraia saritua <http://www.erentzun.blogspot.com/> helbidean ikus daiteke. Zorionak Erentzun Ikastolako 6.mailako ikasleei, eta zorte on finalean!

**Abenduko
hotzetan...**



**Nabarrak bero-bero
jarriko zaitu!**



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen maiztzeo eztabidak utzi diguna...

>>> Administrazioak etorkinen eskolatzean esku hartzen du batzuetan. Zenbait herritan, adibidez, eskola jakinetara bideratzen dituzte. Bide egokia ote da hori?

> Zer gertatzen den esatera ausartzen bagara, zergatik ez dugu esaten zer egin beharko genukeen? Beldurraren bidez kontrola ezartzen dela dioen azterketarekin ados nago. Baina, ordea, ez daukat garbi nola jokatu beharko genukeen gure geletan, ikastetxeetan, etxean...

Hitz egitea, kasuak agertzea, hausnartzea, aukera desberdinak ikertzea, hipotesiak azaltzea, irteera posibleak irudikatzea, dau-den interesak ezagutzea... Ziur ezertxo ere jakin gabe, pentsamenduak konpartitzea bidea izan litekeela uste dute, gure buruak barrura begira sentitzeko eta mundura begira jartzeko. *Mariluz*

> Presio mediatikoa bai, noski bizi dugula! Eta horren eragina? Ez da jende arruntarengana soilik iristen. Adibide gisa, azken atxiloketek (Arnaldo, Rafa, Miren...), aurreko beste askok bezala, epaileen menpekotasun jokaera nabarmen uzten dute.

LABen egoitzako bileran lau kide omen zeuden. Beste sei atxiloketa banan-bana kalean hartuak. Hamar horiek osatzen ari omen ziren mahai berri bat polizia-komunikabideen arabera.

Epaileen erantzuna: bileran zeuden lauetatik batzuk kartzelara eta beste batzuk kalera. Banan-bana hartutako seietatik, batzuk kartzelara eta besteak kalera. Emaizta: Hamar haietatik, bost kartzelara eta bost kalera. Nork uler dezake?

Epaileek presio mediatikoari ihes egiterik ez badute, bere epaia zuzendua eta baldintzatua baldin bada, nola eska diezaiekegu objektibotasuna irakasleei, hezitzaileei, gurasoei? Oro har, edozein hiritarri?

Eskolak, nire ustez, oinarrietara jo behar du. Giza eskubideak adostea, errespetatzen diren ala ez behatzea eta horri buruz hausnartzea, aterabide posibleak aztertzea, eta, ondorioz, jarrera aktiboa hartzea. Ez dago beste biderik, bestela, faxismoa elikatzen a-rituko gara. *Miren B.*

> Badakit berebiziko garrantzia duten informazio batzuk badaudela. Hala ere, komunikabideetako informazioa, oso interesa-tua denez, erlitzatu egin beharra dago. Horretarako, beste aukera hipotetikoak mahai gainean jarri eta posible izan litezken ala ez aztertzea komeni da, absurdoraino iritsiz.

Ondorioz, komunikabideetan agertzen dena erlatibizatzen ikasiko dugula uste dut. Eta ez da gutxi, ezta?. *Maria Teresa*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Eusko Jaurlaritzaren curriculum dekretu egitasmoak euskara eta gaztelania "parekatuko" ditu. Isabel Celaá Hezkuntza Sailburuaren hitzetan, "elebitasun orekatua" lortzeko helburuarekin. Bide horretatik helburua betetzea posible dela uste al duzu?

Partekatze proiektuak

Eskuarteetan proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzerara bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatzeo aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitztezte besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektroni-koan harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak




Nire amak ez dauka erremediorik

A. Mendizabal / JM. Morcillo

ELKAR

Iratik hamabi urte ditu eta oso argi ditu bere helburuak. Amak, ordea, oso bestelako ideiak ditu; espezial samarra da, xelebrea ez esategatik. Bateko artista izan nahi du, besteko naturista, eta beste batean bidaiatzeko grina sartzen zaio. Amaren burutazioekin estu eta larri ibili ohi dira aita eta alaba. Iratik berak kontatuta hamaika pasadizo barrengarri topatuko dituzu liburu honetan. •



Zer da zure burmuinari buruz dakizuna?

Francisco J. Rubia

GAIK

Galdera asko daude oraindik erantzun gabe gizakien burmuinaren inguruan. Eta uste oker asko ere baditugu. Dena den, neurozientziari esker geroz eta gauza gehiago dakigu gure buruan gertatzen denari buruz. Liburu honetan 60 galdera erantzungo dituzte, eta oso zabaldua dauden zenbait uste desegingo dizkigute. •



Nur eta oihan misterioitsua

Martinez de Lezea / Juan Luis Landa

EREIN

Nur bere lagunekin joango da gau bat pasatzea oihan misterioitsura. Arizten laguntzarekin motxilak kargatu dituzte bizkarrean eta oihanean jarri dute kanpin-denda. Zakuetan sartu dira lo egiteko, baina prakagorrien istorioekin ezin lorik hartu dabilta... Hurrengo goizerako, Nurrek eta bere lagunek badute beste lan bat ere, oihanean ezkutaturik dagoen altxorra bilatzea. •



Ekilibristaren polka

Mikel Zubeldia

EUSKALTZAINDIA/BBK

Hiri gris batean girotuta, elkarrekin lotura duten bost narraziok osatzen dute 2008ko Txomin Agirre eleberri saria eskuratu duen Mikel Zubeldiaren lanak. Jon Gallimore protagonistak, Margrit Makay aktorearen zentzurik gabeko ihesa kontatuko dio irakurleari. Identitateaz, pertsonen arteko gatazkez, maitasunaz... hitz egiten du •



Hiru otso

Amaia Hennebutte Millard

IKAS

Hiru liburuk (Hiru xerri tipi, Otsoa, axeria eta ahuntzak eta Otso gosetua) osatzen dute Ikas pedagogia zerbitzuak argitaratutako bilduma honek. Gainera, irakurri ez ezik istorioak entzun ere egin daitezke. Izan ere, hiruak, giro musikal berezi batekin CD batean grabatu baituzte. Lanak euskal kultur erakundearen sorkuntza saria jaso zuen 2007an •



Mari Zipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi

Myriam Cameros / Nunila López

TXALAPARTA

Errealitatea txikitikontatutako eta sinetsitako ipuinetatik urrun dagoela konturatu diren eta konturatzen ari diren hamaika emakumeen istorioa da Mari Zipriztinena. Ironiaren eta irudien adierazkortasuna erabiliz, emakumea eta gizarte-arrakasta lotzen dituzten estereotipoak hankaz gora jartzen ditu. •

... nora joango gara?

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Burdinaz betetako bagoiak

Meatzaritzaren Museoa Euskal Herriko meatzaritzaren kultura eta historia, bereziki, Bizkaiko Meatzaldeari dagokiona, ikertzea eta hedatzea du helburu. Bizkaiko Enkarterrietan kokatuta dago museoa, Garrantzia herrian, garai batean Bizkaiko meatzaritza industriaren erdigunea izan zen lekuan.

Museoaren aurre-aurrian, zeru zabalpeko Concha II meatzeta dago. Itsoaren maila baino hogeimetro baxuago dago. 1961etik 1993ra arte ustiatu zuten meatzeta. Urtean 50.000 tona burdina ateratzen zuten 700 meatzari inguruk. Izan ere, meatzaritzak garrantzi handia izan du Euskal Herriko industrian. XIX. mendean izan zuen garai gorrena sektore horrek, Meatzaldean bereziki. Lurralde horretan burdina oso ugaria eta kalitate onekoa zen. Minerala gainazalean zegoen, eta, horregatik, erauzketa estalperik gabe egiten zen. Meatzeta jarduera horrek ondare industrial nabaria utzi du Meatzalde guztian, eta horri buruzko azalpenak ematen dira museoan.

Meatzaritzaren Museoaren beste helburuetako bat meatzaritzaren industria ondare hori babestea da. Hala, meatzaritza sektorean erabiltzen ziren tresnen bilduma zabala ikusi ahal izango du bisitariak. Balio historiko handi-



ko piezak ikus daitezke; esate baterako, mineralaren garraiorako erabiltzen ziren bagoien eta bagoneten bilduma osatuena dute Garrantziako museoan. Era berean, zulaketak egiteko tresnak, Bizkaiko meatzaritzan historikoki erabiltako makineria eraberritua, mineralen garbiketarako tromelak eta eguneroko erabilerako hainbat tresna ere (lanparak, oinetako bereziak, bagoiak kontatzeko abakoak, maskarak, laztabinak... Pieza horien artean gehienak Bizkaiko meatzaritzaren urrezko garaitik –XIX. mendearen bukaera eta XX. areen hasiera– gordetzen diren bakarrak dira.

Meatzaritzaren ondare horrek guztiak garbi adierazten du zeinen garrantzitsua izan zen burdinaren ustiapena Bizkaiko industrian. Jarduera horrek, Euskal Herriko paisaia naturala, soziala eta ekonomikoa izugarri aldatu zituen. Bizkaiko meatzaritzaren ondarean, na-

barmentzekoak dira hainbat herritan gorde diren kiskaltze labeak, trenbideak, minerala garraiatzeko baldeen aire lerroak...

1986an sortutako Meatzaritzaren Museoa Kultur Elkartek bildu ditu aipatutako pieza horiek guztiak, eta Bizkaiko meatzaritzari buruzko dokumentazio zabala ere bildu du. Urte horietan guztietan, irabazi asmorik gabeko elkarte horretan hainbat boluntario aritu dira lanean. Elkartearen ardurua nagusia Bizkaiko garai bateko meategietako materiala bildu, eraberritu eta dokumentazioa jasotzea izan da.

Museoaren eskaintza

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoak Euskal Herriko meatzeta kulturen eta historiaren ikerketa, babesa eta hedapena ditu helburu, besteak beste.

Horretarako, hezkuntza egitaraua-


ren barruan, jarduera ugari prestatu ditu museoak.

-Erakusketa iraunkorra (bisita aldeztu aurretik hitzartuta):

Lehenenik eta behin, bisitariak XIX. mendeko amaierako eta XX. mendeko hasierako meatzaritza tradizionalari buruzko ikus-entzunezkoa ikusiko dute.

Ondoren, Meatzaritzaren Museoren aldamenean dagoen Concha II meategia bisitatu ahal izango da. Concha II meategia Europako burdin meategi handiena izan zen garai batean. 50 kilometroko galeriak ditu.

Azkenik, museoko aretoak bisitatu eta gaiari buruzko hainbat esparru landuko dira, Euskal Herriko meatzaritzaren historiari buruz jakiteko.



EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA

Abanto Zierbenako hiltegi zaharra.
48500 Gallarta, Bizkaia.

Harremanetarako:

Telefonoa: 946 36 36 82

Helbide elektronikoa: informacion@museominero.net

Webgunea: <http://www.museominero.net>



Jarduerak:

Meatzaldea ezagutzen:

Uztailean udalekuak antolatzen dituzten Meatzaritzaren Museoak 8 urtetik 12ra bitarteko haurrentzat. Modu jolasgarri eta kulturalera, gaztetxoek gure arbasoek utzitako ondarea hurbiletik ezagutuko dute.

Familientzat:

Uztailean jarri zuten abian familiei eskainitako ekimen hau. Elkarrekin ikasi eta ongi pasatzeko aukera ematen du. Familia bakoitzak meatzaritzaren munduan barneratzeko aukera izango du museoak emango dion materialari esker. Jolas eginez ikasteko aukera paregabea da.

Gure historia, burdina:

Bisitaldia Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei eta Batxilergo ikasleei zuzenduta dago. Modu dinamiko eta entretenigarrian, Bizkaiko industrializazioa ezagutuko dute. Horretarako, irakasleak material didaktiko bat izango du ikastetxean, museora bisitaldia egin aurretik lantzeko.

Ondoren, bisitaldi berezia egingo da museoan, eta gai hauek landuko dira: burdingintza eta meatzaritza tradizionala, industria hazkundera, meatzaritza azpiegitura, meatzariak eta bizi baldintzak, politika eta gizarte indar berriak, eta gizarte klase baten sorrera.

Bukaeran, hiru dimentsiotan egindako ikus-entzunezko bat proiektatuko da. Aurretik entzundako azalpenak barneratu diren ala ez jakiteko jolas moduko bat izango da.

Sutegia piztea:

Hilabeteko azken igandean sutegia martxan jartzen da, eguerdiko 12:00etan. Burdina lantzeko antzinako teknikak ezagutzeko aukera eskaintzen du, eta, aldi berean, burdinola batean egiten zen lanera hurbiltzeko parada ere bai. Aldeztu aurretik hitzordua zehaztuz gero, bisitaldia ere egin daiteke egun horretan.

Ordutegia:


-Astelehenean, 09:00etatik 14:00etara.

-Asteartetik ostiralera: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. (Udan 20:00ak arte).

-Larunbat eta jaiegunetan: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. (Udan 20:00ak arte).

-Igandetan: 11:00etatik 14:30era.

atzeko atetik



Mikel ASTARLOZA

Txirrindularia

Gogoan dut ikasle nintzeneko garaia. Egia esan, ez nuen oso gustukoa ikastolara joatea, eta are gutxiago ikastea.

Nik jakitea izan dut gustuko beti, baina argi dago gauzak jakiteko ikasi beharra dagoela. Hala ere, ikasteko era asko daude; alde batetik, irakasle go-gaikarri bati entzunez edota testu-liburu baten aurrean ikas daiteke. Bi adibide horietan, informazioa noranzko bakarrean bideratuta dago. Eta, bestetik, lagun artean edota jolasean ikasteko aukera dago, non informazioa bi noranzkoko elkarrekintza bat den.

Nire bizitzan gauza asko ikasi ditut, asko liburu eta irakasle artean, ikasto-

HIK HASI BIZITZEN...

lan. Baina, beste asko, nire lagun batek dioen moduan, “bizitzaren unibertsitatean”.

Hogeita bi urterekin, Frantziara “erbestera” ninduten txirrindulari profesional izateko helburuarekin, eta han ikasi nuen niretzat kultura, bizimodu eta hizkuntza berri bat izango zena, frantsesa. Han, hiru hilabete pasatu ondoren, ikastolan zortzi urtean ingelesa ikasten baino maila askoz ere altuagoa lortu nuen frantsesean. Geografia ikasketak ere ikastolan egin nituen, baina munduan zehar lasterketa asko edukitzeak askoz gehiago erakutsi didala aitortu behar dut. Matematika ere ikasten da liburu artean, baina banketxera joan eta etxebizitza bat erosteko dirua eskatzeko garaian ikasten dira zenbakien nondik norakoak, interesak, euriborraren aldaketak eta komisioen zer-gatiak...

Horrela, ikasgai bakoitzaren harira, ikasitako gauzekin, zerrenda amaigabe bat osa nezake. Funtsean gauza bera

adierazteko, hau da, nire motibazioa eta ikasitakoaren erabilgarritasuna izan direla ikasteko oinarrizko baldintzak.

Laburbilduz, argi utzi nahi nukeena zera da: ikasteko, hau da, nork bere burua bizitzarako beharrezkoak izango dituen ezagutzez janzteko, testu-liburuaktresna baliagarriak izan arren, eguneroko esperientzia pertsonaletatik gehiago ikasten da. Horrekin ez dut esan nahi testu-liburuetatik ikasten ez denik, ezta gutxiago ere, baina, ikasle ohi moduan, nire uste apalean, gure hezkuntza-sistemaren lehen helburua ikaslea ikastolara gustura joatea izan beharko luke. Eta, horretarako, gure hezkuntza-sistemak dituen bi gabezia nabarmenenak gainditu behar dituela uste dut: batetik, ikasleen motibazioa kontuan hartzea, hau da, ikasleen premiak edo jakin-mina abiapuntu izatea; eta, bestetik, praktikotasuna, hau da, ikasi beharrekoa bizitzan tresna erabilgarria izango dela norberak bere kabuz frogatu ahal izatea.



Hau da niretzat sortzaile izatea: bakoitzaren sortzeko gaitasunari bide ematea.

Imanol Urbieto

ARMIX

KART

Bideo-joko didaktikoa
Lasterketa-jokoa, bakarrik
edo beste norbaitekin lehiatzen
aritzeko



Euskara, gaztelania eta
ingeleseko galderekin

6-10 urte - PCrako



ELHUYAR
ed1210ak

% 5eko
deskontua
www.elhuyar.org/
edizioak
helbidean

www.elhuyar.org/armixkart

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Pailazoon aurtengo altxorra,
etxeko pirata txiki eta
handiek ongi pasatzeko!



Irrien lagunak CDa
20 ipuinbo eta 20 abestirekin,
etxeko sudurgorri guztientzat!

16€



18€

BILDU GURE FESTARA!



Ane Pirata
abenturazalearen
ipuinia.

9€

www.katxiporreta.com
webgune berria ere prest da, elkarrekin
harreman zuzenean aritzeko!
Elkarrekin osatuko dugu!



eskaerak
www.katxiporreta.com

Katxiporreta
KOOP. E.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404